



# OSALANen Memoria 2013



# AURKIBIDEA

<b>1. HITZAURREA</b>	<b>03</b>
<b>2. 2013RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN GAUZATUTAKO EKINTZAK</b>	<b>06</b>
2.1. KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA	07
2.2. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN PARTE-HARTZEA ETA HAIEN ARTEKO LANKIDETZA	12
2.3. ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA	13
2.4. LAP-AREN ALORREKO KONTROLA ETA AHOLKULARITZA, BATEZ ERE ETE-EI	16
2.5. LAN-BALDINTZAK ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEAKETAN TXERTATZEA	19
2.6. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA LEHEN SEKTOREAN	21
2.7. JAKINTZAREN SORRERA HEZIKETAREN ETA IKERKETAREN BITARTEZ	24
2.8. OSASUNAREN ZAINZA	30
2.9. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARAKO JARDUKETEN KALITATEA	34
2.10. ARRISKU ERGONOMIKOEN ETA PSIKOSOZIALEN PREBENTZIOA	36
2.11. INFORMAZIO-SISTEMAK	38
2.12. PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA	42
2.13. OSALANEN ERAKUNDE-JARDUERA	45
<b>3. BALIABIDEAK</b>	<b>48</b>
3.1. BALIABIDE EKONOMIKOAK	48
3.2. GIZA-BALIABIDEAK	49
<b>4. 2013RAKO KUDEAKETA PLANAREN GARAPENARI BURUZKO BALIOESPENA</b>	<b>50</b>
1. <b>ERANSKINA:</b> EAE-KO ISTRIPUEI BURUZKO DATUAK	52
2. <b>ERANSKINA:</b> OSALANEK 2013RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN ANTOLATUTAKO EKITALDIAK	54
3. <b>ERANSKINA:</b> OSALANEK ANTOLATU EZ DITUEN EKITALDIETAN 2013RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN PARTE HARTZEA	56
4. <b>ERANSKINA:</b> OSALANEN ZUZENDARI NAGUSIAK 2013AN PARTE HARTUTAKO EKITALDIAK	58





**Aurtengoan ere OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen ekitaldiko Jardueren memoria aurkezten dugu, 2013koa hain zuzen. Dokumentu honetan jaso nahi ditugu erakundeak EAEko langileen laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako hainbat alorretan urtean egindako jarduerak eta lortutako emaitzak.**

Espero daitekeen bezala, 2013rako diseinatutako Kudeaketa Plana, Osalanen Kontseilu Nagusiak onetsia, izan da gure jardueren ardatza. Plan hori, edukiari dagokionez, aurrekoen jarraitzailea izan da, 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategia hedatzeko bidean. Horrenbestez, aurreko urteetan jorratutako lan-eremuei eutsi zaie, kudeaketa hobea bideratuko duten aldaketa operatibo batzuk soilik eginda, eta lehentasunak zertxobait berrantolatuta, laneko segurtasun eta osasunaren alorrean hautemandako premiei egokiago erantzutearren.

Alabaina, 2013ko Planak aldaketa bat ekarri digu, erakundearen barruan lana antolatzeko moduari dagokionez. Aldaketa guztietan gertatzen den bezala, ez da erraza izan, eta ekintzak abian jartzeko prozesuan denbora apur bat gehiago behar izatea eragin du. Horri buruz esan dezakegu, atseginez, lan-dinamika berria ezarrita dagoela eta dagoeneko bete-betean ari dela funtzionatzen.

Halaber, azpimarratu behar da Planaren garapenean eragin handia izan duela erakundearen Zuzendaritza Nagusian egindako kargu-aldaketak, aurreko legealdia amaitu eta oraingoa astearen ondorioz. Urtearen hasieran zuzendari-kargua hartu nuen, eta garrantzi handiko erronka profesional eta pertsonal horri ekiten diot egunero, ilusio eta profesionaltasun handienaz, erakunde hau osatzen duten gainerako kideen antzera.

Osalanen 2013rako Kudeaketa Planak bere egin zituen Euskal Autonomia Erkidegoko langileen segurtasuna eta osasuna hobetzearen jarduteko konpromisoak, gure lurraldeko errealitatea oinarri hartuta, laneko arriskuen prebentziorako eragileen eta jarduleen laguntzarekin, gure jarduerari ahalik eta etekin handiena atertzeko, ahalik eta inpaktu handiena ahalik eta kostu txikienaz lortzeko formulak baliatuta.

Gure ustez, konpromiso horiek bete ditugu, eta horren berri ematen dugu Memoria honetan. Halaber, dokumentu honek baliagarria izan behar du gure profesionalen ahalegina eta inplikazioa aitortzeko, bai eta guri dagokigun zeregin garrantzitsu honetan lagundu duten guztien jarduna aitortzeko ere.

Guzti-guztiori, eskerrik asko.

**Izaskun Urien Azpitarte**  
*Osalaneko zuzendari nagusia*

# HITZAURREA

# 1

Osalanek 2013an egindako jarduerak bat datoz ekitaldirako onetsitako Kudeaketa Planean ezarritakoarekin. Aldaketa txiki batzuk soilik egin behar izan dira, helburuak hobeto betetzeko eta kudeaketa eraginkorrago bideratzeko.

Kudeaketa Plan horren bidez, 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategia garatzeko prozesuan aurrera egin da, eta horrenbestez, bertan definitutako helburu, jomuga eta jarduera-ildoei eutsi zaie. Azken horiei dagokienez, aurreko kudeaketa-planen ikuspegiari eta multzotan banatzea zertxobait aldatzeari egoki iritzita, berrantolatu egin dira horiek, haien bidez lortutako emaitzak eta egoeran eta lehenetasunetan egindako aldaketak aintzat hartuta. Esate baterako, ergonomia eta psikosozioologia aplikatua lantzen dituen prebentzio-diziplina bultzatu nahi izan da, eta lehenetasuna dutela iritzitako esparru horietan ekintzak hedatzeko berariazko lan-ildoak sortu da. Halaber, lehen sektoreko laneko arriskuen prebentzioari eutsi egin zaio berezko izaera duen lan-eremu gisa, iaz bezala, istripu-tasa handiek eta prebentzioa kudeatzeko dauden zailtasun bereziek adierazten baitute hala antolatu behar dela. Arlo horietako bakoitzean, Estrategian ezarritako helburu orokorrak jomuga zehatz batzuk lortzearen bitartez betetzeko ekintzak diseinatu eta egikaritu dira.

Adostutako eta dagozkien fitxetan gordetako diseinuaren arabera garatu dira ekintza horiek. Fitxa horietan definituta daude ekintza bakoitzaren helburua, irismena, zereginak, egutegia eta jarraipenerako mekanismoak. Eremu bakoitzean egikaritu dena, lortutako emaitzen balantzea eta etorkizunerako itzaropenak hurrengo kapituluan jasota daude zehatz. **Gogoeta horien haritik, jarduera-eremu estrategikoak honela banatu dira:**

2011-2014 ALDIRAKO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN EUSKAL ESTRATEGIAREN JARDUERA-ILDOAK	OSALANEN 2013RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESKU-HARTZE ESPARRUAK
JI.1 Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa	J.1 Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa
JI.2 Laneko Segurtasunean eta Osasunean (LSO) inplikaturako eragileen parte-hartzea eta haien arteko lankidetzak	J.2 Laneko Segurtasunean eta Osasunean (LSO) inplikaturako eragileen arteko lankidetzak
JI.3 Erakundearen konpromisoa eta lankidetzak	J.3 Erakundearen konpromisoa eta administrazioen arteko koordinazioa
JI.4 Ikuskeraren, kontrola eta aholkularitza	J.4 Laneko arriskuen prebentzioaren arloko kontrola eta aholkularitza, enpresa txiki eta ertainei bereziki
JI.5 Laneko arriskuen prebentzioa, enpresak eta lan-baldintzak hobetzeko	J.5 Lan-baldintzak eta laneko arriskuen prebentzioa kudeaketan txertatzea
JI.6 Laneko arriskuen prebentzioa kudeaketan integratzea, enpresaren bikaintasuna sustatzeko	J.6 Laneko arriskuen prebentzioa lehen sektorean
JI.7 Prestakuntza espezifikoa	J.7 Jakintzaren sorrera prestakuntzaren eta ikerketaren bitartez
JI.8 Osasunaren zaintza	J.8 Osasunaren zaintza
JI.9 Laneko arriskuen prebentzioaren arloko jarduketaren kalitatea	J.9 Laneko arriskuen prebentzioaren arloko jarduketaren kalitatea
JI.10 Jakintza sortzea	J.10 Arrisku ergonomikoen eta psikosozialen prebentzioa
JI.11 Informazio-sistemak.	J.11 Informazio-sistemak
JI.12 Pertsonen garapen pertsonala eta profesionala	J.12 Pertsonen garapen pertsonala eta profesionala

Arlo horietako bakoitzean, Estrategian ezarritako helburu orokorrak jomuga zehatz batzuk lortzearen bitartez betetzeko ekintzak diseinatu eta egikaritu dira. Adostutako eta dagozkien fitxetan gordetako diseinuaren arabera garatu dira ekintza horiek. Fitxa horietan definituta daude ekintza bakoitzaren helburua, irismena, zereginak, egutegia eta jarraipenerako mekanismoak. Eremu bakoitzean egikaritu dena, lortutako emaitzen balantzea eta etorkizunerako itzaropenak hurrengo kapituluan jasota daude zehatz.

Gainera, Osalanek bete egin ditu bera sortzeko legean esleitutako funtzioak, hala nola lan-istripuak eta lanbide-gaio-tasunak ikertzea, laneko, osasuneko eta industria-segurtasuneko agintaritzek laguntza teknikoa jasotzeko egindako eskaerei erantzutea, eta instantzia judizialek eta laneko osasunean eskumenak dituzten beste erakunde eta organo batzuek egindako eskaerei ere erantzutea. Halaber, EAEn aritzen diren prebentzio-zerbitzuen gain osasuneko agintaritzak gisa dituen eskumenak gauzatu ditu.

# 2013RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN GAUZATUTAKO EKINTZAK

# 2

Jarraian zehaztuta daude 2013rako Kudeaketa Plana osatzen duten hamahiru lan eremuetan Osalaneke egindako jarduerak, bai eta emaitza nagusiak eta eraginaren zenbatespena ere.

Aitortu behar da 2013rako Kudeaketa Planean diseinatutako jarduera guztiak ezin izan direla aurreikusitakoaren arabera gauzatu. Batzuk ez dira oraindik hasi, eta beste batzuk ez dira itxaropenen arabera garatu. Disfuntzio horiek ezkutatzeko asmorik ez dugu; kasu guztietan justifikatuta daudelakoan gaude, eta ez dira, inolaz ere, Osalaneke ahalegin faltaren ondorio. Horrenbestez, emaitza onak izan ez dituzten ekimenak nabarmenduko ditugu, bai eta horren arrazoiak ere, administrazio eta erakunde publikoei eskatu behar zaien gardentasunaz jokaturik.



# 2.1

## KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA



### Euskal gizartean prebentzio-kultura sortu eta sendotzea... guztion zeregina

Arlo horretan «euskal gizartean prebentzio-kultura sortzea eta sendotzea» helburua lantzeari eutsi zaio, eta Osalanek oso garrantzitsutzat jotzen du.

Erakunde honen ustez, administrazioetan ahaleginak egin behar ditugu EAEko herritarrak ohar daitezen laneko arriskuen prebentzioaren garrantziaz. Baina, horrez gainera, uste dugu herritarrek ekarpen handiak egin ditzaketela eta egin behar dituztela arlo horretan. Hartara, erakundeen ikuspegiaren osagarri izango da prebentzioa egunero lantokietan eta oro har inguruan bizi dutenen ikuspegi askoz ere errealistagoa eta praktikoagoa.

Horren haritik, euskal gizartea osatzen duten kolektiboetara iristen ahalegindu gara, haiei informazioa ematea, kontzientzia sortzea eta, ahal den neurrian, Osalanen jardueretan inplikatzeko helburu hartuta. Horretarako ekimen nagusi hauek egin dira:

► Laneko arriskuen prebentzioa hedabideetan, prebentzio kultura zabaltzea eta sustatzea helburu hartuta

Osalan urtean zehar etengabe agertu da **hedabideetan**.

- Prensari idatzia: Tirada handiko egunkariak: DEIA (artikulu bat hilean), Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa, El País eta El Correo, bai eta aldizkari espezializatuak ere.
- Irratia: Zuzendariari egindako elkarrizketak eta ekitaldi bereziak aurkezteko iragarkiak (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Telebista: Antolatutako ekitaldiei buruzko informazio zabala.

2014an laneko segurtasun eta osasunari buruzko gaien dibulgazio-zereginetan jarraituko dugu, eta erakundeak

egindako proiektuen eta antolatutako ekitaldien berri emango dugu.

► Enpresaburuak zein langileak helburu dituzten dibulgazio-ekintzak, laneko arriskuen prebentziorako bereziki inplikaturako kolektiboak diren aldetik

- Osalanek parte hartu du laneko segurtasun eta osasunari buruzko **enpresarioen elkargune-foroetan**. Azpimarratzekoa da ADEGIk sustatutako Gipuzkoako Laneko Arriskuen Prebentziorako V. Foroa; izan ere, esparru horretan hiru saio egin dira gai hauek jorratzeko: «Laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa kontrolatzea eta kudeatzea», «Laneko arriskuen prebentzioa kudea-

tzeko aplikazio mugikorrek», eta «Garraiolariak eta prebentzioa». Horrez gainera, plangintzako zuzendariordeak amiantoari buruzko hitzaldia eman zuen Gasteizko SEAn 2013ko azaroaren 2an.

- **Prebentzio-ordezkaria** sustatzeko ahalegina egin dugu, laneko arriskuen prebentzioan funtsezko eragile horrek duen eginkizuna azaltzen duen dibulgazio-triptiko bat hedatuta. Liburuxka horren 3.000 ale egin dira, enpresetan banatzeko, eta Osalanen webgunean ere argitaratu da.



► **Interneten erabilera bultzatzea laneko segurtasun eta osasun gaietan informatzeko eta parte-hartzeko**

Osalanek **internet** erabiltzearen aldeko apustu sendoa egin du, laneko arriskuen prebentzioaren alorreko dibulgazio-, informazio- eta prestakuntza-jardueretarako tresna den aldetik. Horretarako, funtsezko hobekuntzak egin ditu weborrian, eskuragarriagoa eta edukien aldetik ere aberatsagoa izan dadin.

Halaber, herritarrak erakundera hurbiltzea sustatu da, bai eta gizarteak laneko segurtasun eta osasunari buruzko gaietan parte hartzea ere, gizarte-sareetako jarduera bultzatuta. Zehazki:

• **Hobekuntzak webgune korporatiboan**

Osalanen webgunea sendotu egin da, laneko arriskuen prebentzioari buruzko edukiak hedatzeko plataforma gisa, eta hango trafikoaren datuak oso onak izan dira. Hona hemen kopuruak:

3. eta 4. puntuetako datuak positiboak direla azpimarratu behar da, 2012ko ehunekoak baino txikiagoak izanda ere. Adierazten dute orain bisitari gehiagok orrialde gutxiago ikusten dituztela. Horren arrazoia da pertsona horiek badakitela, lehenik egindako bisiten ondorioz, nora joan nahi duten, eta horrenbestez, azkarrago sartzen direla interesatzen zaien gure webguneko orrialdera.

**TRAFIKOAREN DATUAK WEBGUNEAN**

	2013	2012
Bisitak (1)	137.494	▲ 16,3 %
Bisitariak (2)	110.138	▲ 40,8 %
Ikusitako orriak (3)	344.535	▼ 20,7 %
Orriak bisitako (4)	2,51	▼ 39 %
Bisita berrien ehunekoa (5)	77,92%	▲ 40,8 %

Gai horretan zenbait hobekuntza egin dira, eta hauek aipatzekoak dira:

- Banner berezi bat jartzea Osalaneke antolatutako ekitaldi bakoitzeko.

- «Berriak» kutxatilan sindikazio automatikorako iturri bat sartzea, Osalango berriak gure irakurleen gizarte sareetako berrietan ager daitezzen.

- «Berriak» kutxatilan sindikazio automatikorako iturri bat sartzea, Osalango berriak gure irakurleen gizarte sareetako berrietan ager daitezzen.

- Osalaneke kanal propio bat abian jartzea YouTubean, Osalaneke antolatutako jardunaldi eta biltzar guztietako txosten grabatuak argitaratzeko.

- «Estatistikak» jasotzeko atal berri bat, EAEn hilero geratutako laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen taulak azaltzen dituena.

#### Osalan gizarte-sareetan

Gizarte-sareetako jarduerak etengabe egiten du gora, eskura ditugun datuen arabera:



- **Facebook:** Osalanek 314 jarraitzaile ditu, eta 262ren jarraitzaile da. 1.028 argazki argitaratuta 57 albumetan eta 102 argitalpenetan.

- **Twitter:** 2.478 tweet argitaratu (3,59 tweet egunean batez beste, larunbat, igande eta jaiegunak barne hartuta). 1.530 jarraitzaile ditugu, eta 1.783ren jarraitzaile gara

- Osalanen kanala **YouTube**n: 77 bideo hedatu dira; 2.124 aldiz ikusi dira, guztira, eta 26 harpidedun daude.

- Osalanen kontua **Google+**en: gizarte-sare horretan probak egiteko fasean gaude, eta 52 pertsona daude gure zirkuluetan.

- Osalanen **Klout** indizea: 56. Adierazle hori enpresa independente batek neurtzen du, eta erakundeak interneten duen ospearen berri ematen du, edukiek irakurleengan duten eraginaren arabera. Otiak 100era bitarteko eskala da, eta Osalanek toki onean dago, beste erakunde publiko eta institutu batzuekin alderatuta.

2014an ere Osalanek interneten duen agerpena eta jardura sustatzen jarraituko dugu, gure politikarekin bat eginez: webgunea izan dadila erakundeak zabalik duen leihoa, elkar-gune hurbil eta lagunkoia herritarrekin, enpresekin, prebentzioaren alorreko teknikari zein ordezkariarekin, eta laneko segurtasun eta osasunarekin zuzenean edo zeharka lotutako beste edozein eragilarekin harremanak bideratzeko.

Prebentzioaren kulturaren oinarrietako bat da laneko arriskuen prebentzio goiztiarraren alorrean kontzientzia harraraztea eta sentsibilizatzea, eta horren ondorioz, nahitaezkoa da gai horiek **hezkuntza-eremuan** jorratzea, modurik egokienean, maila bakoitzaren arabera. Arlo honetan ekintza hauek gauzatu dira:

#### ► Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko prestakuntza Lanbide heziketako ikasleentzat

**Lanbide Heziketako** ikasleek Osalanen instalazioak ezagutzeko bisitaldiak antolatu dira, eta bisita horietan laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta dokumentazioa eman zaie. Orain arte, Osalanen Bizkaiko Lurralde Zentroan egin dira bisita horiek, eta 14 ikastetxetako 200 ikasle inguruk bisitatu dituzte gure instalazioak, Lanbide Heziketako ikasleak eta beste batzuk barnean hartuta.

Ekimena beste lurralde batzuetara eta prestakuntza arautuan diharduten beste ikastetxe-mota batzuetara hedatzea aurreikusi da; izan ere, oso harrera ona izan du ekimenak, eta prebentzioaren aldetik duen interesa bistakoa da.



#### ► ADI proiektua, Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin eta MUTUALIArekin lankidetzan, Lanbide Heziketako ikasleen artean prebentzioaren kultura sustatzeko

Proiektu horri 2011n ekin zitzaion, eta gaur egun jarraitzen du. Orain arte, **Lanbide Heziketako 1.880 ikasle gaztek** laneko arriskuen prebentzioaren alorreko irakaspena jaso dute Euskadiko hiru lurralde historikoetan. Ideia abian jarri zen Mutualiak egindako ikerlan bat oinarri hartuta; izan ere, azterketa horrek agerian jarri zuen Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleek gai horri buruz ezer gutxi dakitela.

Proiektuaren muina da ikastetxeetan hitzaldiak ematea, prebentzioaren alorrean diharduen langile batek eta laneko istripu bat pairatutako boluntario batek parte hartuta. Pertsona horiek beren esperientziaren berri ematen dute.

2013an Lanbide Heziketako 12 ikastetxetako 702 ikaslek parte hartu dute, guztira.



Ikasleek eta irakasleek ekimen horri buruz egindako balantzea oso positiboa da, eta honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Parte-hartzaileen % 95ek uste du jarduera horrek prebentzioaren kultura sustatzen duela eta gazteek konzientzia hartzeko egokia dela.

- Ikasleen % 100 bat datoz: istripua izandako pertsonak emandako hitzaldia da alderdi interesgarriena.

- Parte hartu duten ikastetxeen % 95ek datorren urtean esperientzia hori errepikatu nahi dute.

Eraitza horiek ikusita, 2014an ere jarraituko du proiektuak, eta aldi berean garatzeko moduko zenbait ekintza osagarri izango ditu.

► **Laneko segurtasun eta osasunari buruzko III. Uda Ikastaroa, UPV/EHUko Uda Ikastaroetan**

Osalanen laneko segurtasun eta osasunari buruzko ikastaroaren hirugarren edizioa egin zen uztailaren 18an eta 19an. Guztira, 130 parte-hartzaile bildu ziren bi gai hauei buruzko saio banatan: alde batetik, «Gaixotasun profesioaren susmoa jakinarazteko sistema»; eta bestetik, «Ergonomia eta arazo muskulu-eskeletikoak», «haien ebaluazioa eta esperientzia ergonomiko praktikoak, prebentzioaren aldetik».



sionalaren susmoa jakinarazteko sistema»; eta bestetik, «Ergonomia eta arazo muskulu-eskeletikoak», «haien ebaluazioa eta esperientzia ergonomiko praktikoak, prebentzioaren aldetik».

Parte-hartzaileek betetako inkestak oinarri hartuta, ikastaroaren balioespen-maila oso altua da, eta ekitaldi horiek interes handia piztu dute laneko arriskuen prebentzioaren alorreko profesionalen artean eta jarduera horretan aritu nahi dutenen artean.

- Unibertsitariei laneko arriskuen prebentzioaren berri emateko Osalanek garatutako beste ekimen bat da ikastetxe batzuetan hitzaldiak ematea eta materialak banatzea; adibidez, UPV/EHUko Gipuzkoako campuseko Arkitektura Fakultatean bi hitzaldi antolatzen dira urtero azken urtea egiten ari diren ikasleentzat, lanbide jardueran izango dituzten laneko arriskuen prebentzioaren alorreko gaiak jorratzeko.

► **Laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako prestakuntza- eta dibulgazio-ekitaldietan parte hartzea**

Osalanek parte hartu du laneko segurtasun eta osasunaren alorreko jakintza hedatzeko hainbat informazio eta prestakuntza-ekitalditan. Ekitaldi horietako batzuk erakundeak berak sustatu ditu, eta beste batzuk, berriz, laneko arriskuen prebentzian espezializatutako beste erakunde, gizarte-eragile eta entitate batzuek sustatu dituzte.

**Osalanek antolatutako ekitaldiak** zortzi izan dira, eta haien deskribapena 2. eranskinean jasota dago zehatz. Nolanahi ere, hauek dira:

- Lan-gosaria metalaren sektoreko adituekin, «Formación de Seguridad Laboral» aldizkariak lagunduta. Barakaldo. 2013ko maiatza.

- Laneko segurtasun eta osasunari buruzko III. Uda Ikastaroa. Donostia. Miramar jauregia. 2013ko uztaila.

- EAEko istripu-kopuruei eta laneko gaixotasunei buruzko 2012ko txostenak aurkezteko jardunaldia. Bilbo. 2013ko iraila.

- ERANET-SAFERA europar proiektuaren aurkezpena, Osalanen ikerkuntzarako diru-laguntzen esparruan. Zamudio. 2013ko urria.

- Enpresan bide-segurtasuna kudeatzeko jardunaldia. Asociación para el Progreso de la Dirección elkarteak antolatuta, MAZ Sociedad de Prevención erakundearekin lankidetzan. Bilbo. 2013ko urria.

- Jardunaldi teknikoak: EAEko sektore-kanpainak. Laneko arriskuen prebentziorako elkarlanean. Bilbo. 2013ko urria.
- Jardunaldi teknikoak: Osasuna sustatzearen bidez enpresa osasungarrira (Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta AENORekin lankidetzan). Bilbo. 2013ko azaroa.
- Arrisku psikosozialei buruzko Osalanen jardunaldien IV. edizioa. Bilboko BEC. 2013ko azaroa.

**Beste erakunde batzuek antolatutako ekitaldietan** ere parte hartu du Osalanek, eta ekitaldi horiek dokumentu honen 3. eranskinean jasota daude zehatz.



#### ► Laneko arriskuen prebentziorako jardueretan euskararen erabilera sustatzea

Enpresetan laneko arriskuen prebentzioa indartzeko beste bide bat da gai horri buruz enpresaburuekin, langileekin eta prebentzio-teknikariekin euskaraz jardutea, etxeko hizkuntza dutelako. Horretarako, terminologia teknikoak adostu behar da, eta laneko arriskuen prebentzioa gure hizkuntzaren bidez kudeatzeko baliabideak eta tresnak eman behar zaizkie. Alderdi horiek jorrotzen ari dira Osalango langileak, eta erakundeak bide horri eutsiko dio 2014an. Horrenbestez:

- Langileen prestakuntza bultzatzen da beren lana euskaraz egiteko gai izan daitezen, eta HAEEK antolatutako ikastaroetan parte hartzen dute.
- ELEBI programaren esparruan, laneko arriskuen prebentzioaren alorreko ohiko esamoldeak eta gorabeherak itzultzeko lanari ekin diogu, eta horiek guztiak euskaraz egoki idazteko moduak adosten ari gara dokumentu ireki batean, eta bertan bilduko dira baliagarriak izan daitezkeen ekarpen guztiak.

“2013. urtean, Osalanek 20 urte bete zituen. Ospatzeko barne-ekitaldi bat egin genuen, eta Erakundeko langileak, erretiratuak eta langile ohiak izan genituen bertan.

Argazkian ekitaldian parte hartu zuten Osalaneko langileak ageri dira”.



# 2.2

## LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN PARTE-HARTZEA ETA HAIEN ARTEKO LANKIDETZA



### Prebentziorako baterako jarduerak garatzen

Arlo honetan planteatutako helburu orokorra –laneko arriskuen prebentzioan inplikatutako eragileen arteko lankidetzaren sistematikoa lortzea, alegia– funtsezkotzat jo da lankidetzaren hori oinarri hartuta baterako ekintzak garatzeko eta eragile bakoitzak bere aldetik duen inpaktua handitzeko.

Osalan etengabe ari da ildo horretan lanean, laneko segurtasun eta osasunaren alorrean diharduten eragile eta jardule guztiak elkar ulertzea eta aliantzak sortzea helburu hartuta. Hartara, ekintza zehatz batzuek gainera, lankidetzaren hori bideratuko duten harremanen eta kontaktuen sarea ezartzearen eta sendotzearen bidez.

- Esparru horretan azpimarratzekoa da laneko arriskuen prebentzioan espezializatutako erakundeekiko lankidetzaren, eta gai jakin batzuen inguruko baterako lanetan jarraitu dugu

2013an ere jardunean jarraitu dute **prebentzio-zerbitzuak** (besterenak, propioak eta mankomunatuak) batera eraturako lantaldeek, honako proiektu espezifiko hauetan:

- EAEko arrisku psikosozialak
- Laneko historia medikoa
- Gutxieneko datu-multzoa
- Droga-mendekotasunen prebentziorako gida

2014an lantaldeen dinamika horri jarraipena eman nahi diogu, eta behar izanez gero, lantalde berriak sortu, beharren arabera. Halaber, lantalde horietan sortutako proposamenak garatu nahi ditugu.

Osalanen eta Lan Harremanen Kontseiluaren arteko lankidetzaren 2011n hasitako ekimenari jarraipena eman diogu, baina ez dugu lortu plangintzan aurreikusita-koaren arabera aurrera egitea. Ekintza honen bidez definituko dira bi organoen arteko etorkizuneko lankidetzarako irizpideak eta lankidetzarako eremuak.

## 2.3

### ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA



Jarduera horiek prebentzioaren helburu komunari erantzuten diote, bakoitzak bere eremutik

Lan-eremu honen helburu nagusia da administrazioen eta erakunde publikoen inplikazioa lortzea laneko arriskuen prebentzioan, bakoitzak bere eskumenen esparruan jarduten duela, baina elkar hartuta eta lankidetzan estuan.

Eremu horretan emaitzak ez dira oso ikusgarriak izaten, OSALAN planifikatutako jardueren garapenerako aktiboki lanean aritu arren. Hala eta guztiz ere, administrazio-egituraren berezitasunek eta erakunde bakoitzak aintzat hartzen dituen lehentasunek elkar ulertzea eta lankidetzan jardutea eragozten dute.

Honako aurrerabide hauek egin dira:

- ▶ **EAEko udaletan laneko arriskuen prebentzioa garatzea**
  - EAEko udalen kudeaketan laneko arriskuen prebentzioa integratzea, eta erakunde bakoitzaren bitartekoekin, **prebentzio-zerbitzu mankomunatu**en bidez, zeregin hori beren gain hartzea.

Ekintza hau astiro doa aurrera, 2011n abian jarri zene-tik. EUDELi aurkeztu diogu Euskadiko udalerrri guztien artean prebentzio-zerbitzu mankomunatuak sortzeak di-tuen onura eta arazoei buruzko ikerlana, bai eta zerbitzu horiek sortzeko eredu baten proposamena eta ezartzeko proiektu posible bat ere.

Gai horiei buruzko erabakirik ez da hartu oraingoz, eta Osalanen eta EAEko udalerrietako ordezkarien artean 2014an egingo diren bileretan jorratu beharko dira.

- Udal-teknikariei **amiantoa** hautemateko eta tratatzeko prestakuntza emateari dagokionez, prestakuntza-pro-grama bat diseinatu eta EUDELi proposatu diogu, foru-al-dundiek eta udalek beren langileei eskainitako presta-kuntza-planean sartzeko.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak prestakuntza -plan hori onetsi du, eta 5 orduko ikastaroak programatu ditu lurralde historiko bakoitzean, 2014ko ekainean egite-ko, Osalanek prestatutako material eta edukiak baliatuta.

► **Laneko arriskuen prebentzioan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako organoekiko koordinazioa**

- Osalanen, **Lan Agintaritzaren** eta **Laneko Ikuskaritzaren** arteko komunikazioa etengabea izan da, eta zenbait jarduketa eta ekitaldietan lankidetzaren estuan aritu gara. Koordinazio hori 2014an sendoagoa izatea aurreikusi da; horrenbestez, ikuskapen-ekintza bateratuak adostuko dira, laneko istripuak murrizteko kanpainak ardatz hartuta.

- Osalanen, **Osasun Sailaren** eta **Osakidetzaren** arteko lankidetzaren berriz, ezinbestekoa da irismen handiko proiektuetan aurrera egiteko; esate baterako, gaixotasun profesionalen susmoa jakinarazteko sistema garatzea, laneko historia medikoaren ereduaren ezartzea, edota lanak eragindako minbiziaren zaintza epidemiologikoa, eremu horietan guztietan dagokien araudi erregulatuak sortzeaz gainera. Lankidetzaren hori ezarri eta hari eustea helburu lehenetsia izan da Osalantzat, eta gaur ere halaxe da.

► **Laneko arriskuen prebentzioa integratzea administrazio publikoek sustatutako herri-lan handietan**

Osalanek aktiboki parte hartu du **azpiegitura handien obretan** laneko arriskuak prebenitzea helburu duten Jarraipeneko Lurralde Batzordeetan. Obra horiek EAEko administrazio publikoek sustatuak dira, eta Osalaneke lankidetzan dihardu Eusko Jaurlaritzako organo eskudunekin, foru-aldundiekin, ADIFekin eta beste erakunde batzuekin.

2013an, lurralde bakoitzeko batzordeek 4 bilera egin dituzte Gipuzkoan eta 8 Bizkaian, helburu hauek aintzat hartuta: gertatutako istripuak ikuskatzea eta haien jarraipena egitea, baterako ikuskapen-bisiten egutegia adostea, eta haien emaitzei buruzko informazioa ematea.

Bai lurralde-batzordeen esparruan bai Osalanen teknika-rien aldetik egindako bisitak, bakarrik edota Laneko Ikuskaritzarekin batera, 41 izan dira guztira.

2014rako, Osalaneke akordio bat egin du Laneko Ikuskaritzarekin, Gipuzkoan batera jarduteko, gaur egun egiten ari diren herri-lan handiak kontuan hartuta, batez ere Abiadura Handiko Trena. Bi erakundeek batera egiten dituzte bisitak astero, batzordearen esparruan egindakoez gainera. Bizkaian ere baterako ekintza programatu da, San Mames Berria egiteko obra ikuskatzeko, herri-lanen parekoa baita, haren garrantziari erreparatuz gero.

► **ERANET-SAFERA proiektuan parte hartzea, hazkunde iraunkor eta adimenduna helburu duen industria-segurtasunari buruzko Europako ikerkuntza koordinatze aldera**

Europar proiektu horren esparruan, azaroaren 23an argitaratu da **industria-segurtasuneko ikerkuntzarako ERANET-SAFERA** diru-laguntzen lehen deialdia, erakunde-faktoreak eta giza faktoreak ikertze aldera. Europako hamar herrialde eta eskualdek parte hartzen dute deialdian, eta 3,4 milioi euroko diru-laguntza publikoak emango dira.

Proiektua Osalaneke ikerkuntzarako diru-laguntzen esparruari dagokio, eta urrian aurkeztu zen Zamudioko Parke teknologikoan.

Lehen deialdi horren ondorioz 53 proposamen jaso dira. Haietatik 4 Osalaneke aurkeztuak. Jasotako eskabideak 20 herrialdetakoak dira eta 9,44 milioi euroko aurrekontua osatzen dute. Proposamenak nazioartean aitortutako zientzialariek ebaluatuko dituzte, 2014ko urtarrilaren amaieran. Ebaluazioaren emaitzen arabera, estatu- eta eskualde-mailako diru-laguntzak emateko erabakia hartuko da, eta baliteke diruz laguntzeko onetsitako proiektuak 2014ko otsailean hasia.





► **Osalanen lankidetzaren autonomia-esparruko, estatuko eta Europako erakunde eta Administrazio Publikoekin**

**Estatuko eta beste autonomia-erkidego batzuetako laneko segurtasun eta osasunerako organo eta erakundeekin lankidetzaren** bistakoa da; izan ere, Osalanek parte hartzen du erakunde horiek antolatutako lantalde eta ekitaldietan, eta baterako proiektuetan dihardute.

Horren haritik, kantaleari erlaintzeko autonomia-erkidegoetako laneko segurtasun- eta osasun-erakundeekin lankidetzan jarraitu dugu (arrantza-sektoreko CANO proiektua), LSHInek eta autonomia-erkidegoetako erakunde homologoek sustatutako ekitaldietan parte hartu dugu, eta laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalako lantaldeetan lagundu dugu, haietan parte hartuta.



- Osalanen eta **Europako Agentziaren** arteko lankidetzaren lotura-batzordearen bidez gauzatzen da, eta batzorde horretan trukutzen da zenbait gairu buruzko informazioa; besteak beste, 2014 eta 2015 urteetan Agentziak egin dituen jarduerak aintzat hartuta, eta Osalanek zenbait iradokizun lehenetsi formulatu zituen haien inguruan.

Agentziak Osalanek antolatutako ekitaldietan laguntza eta lankidetzaren zientifikoa eman ohi du; halaber, gure erakundeak Agentziaren ekimenetan parte hartzen du. Horrenbestez, 2014an laneko estresari buruz egitea aurreikusitako kanpaina, apirilean hasiko dena, kontuan hartuta, Agentziak material hauek bidaliko dizkio Osalani,

gure ekitaldietan hedatzeko: Gidaliburuak eta liburuxkak, posterrak, karpetak eta DVDak.

► **GSINekin batera lan egitea**

2013an garrantzi berezia izan du GSINekin lankidetzan jarduteak. Lankidetzaren horren ardatza izan da **amiantoaren erabilteagatik sortutako gaixotasunek eragindako pertsonak** tratatzeko sinatutako hitzarmena. Hitzarmen horren esparruan lantalde bat eratu da, patologia horiek pairatzen dituzten langileei arreta hobea ematea bideratuko duen jarduteko protokoloa adostea helburu hartuta.

Lantaldearen bileretan hainbat kasu bildu dira, eta administrazio bakoitzaren zeregina, arazoak eta premiak aztertuta dira.

2014ko otsailaren 5ean Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea bildu zen 2013an gertatutakoa aztertzeko eta luzapena onesteko, gehigarri baten bidez, eta GSINri jakinaraziko zaio, onets dezan.

2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategiaren tarterko ebaluazioa ez da egin azkenean, Kudeaketa Planean hala egingo zela adierazita bazegoen ere. Eginkizun horri ez heltzearen arrazoia baliabideak arrazionalizatzeko irizpideetan bilatu behar da. Horrenbestez, erabaki zen ahaleginik ez egitea, batez ere 2015-2018 aldirako estrategia berria diseinatzeari begira gauzatu beharreko eginkizunari dagokionez. Jarduera hori Osalanen 2014ko Kudeaketa Planean jasota dago, eta zeregin nagusi izango da.

# 2.4

## LAP-AREN ALORREKO KONTROLA ETA AHOLKULARITZA, BATEZ ERE ETE-EI



### Lantokietan presentzia aktiboa izateak eraginkortasuna bermatzen du

Jarduera-ildo honen bidez, Osalanen asmoa da EAEko enpresetara iristea eta haietan jardutea, batez ere enpresa txiki eta ertainak kontuan hartuta, prebentzio-jarduera hobetzeko behar duten aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea helburu nagusitzat hartuta.

Hala ere, erakundeak zenbait **kontrol-ekintza** ere egiten ditu, gehienetan Lan Agintaritzek eskatuta, edo industria-segurtasunaren alorrean eginak. Hauek dira nabarmenenak:

#### ► Amiantoak daukaten materialak kentzeko lan-planen kontrola

Osalanek laguntza ematen dio Lan Agintaritzari, **amianto** duten materialak kentzea baimentzeko prozeduraren esparruan. Horrenbestez, laneko planak berrikusten ditu eta lan horiek egiteko baldintzak jakinarazten ditu. Hau da 2013an egindako jardueren laburpena:

- 346 lan-plan jaso dira, 71 en Araban, 107 Bizkaian eta 168 en Gipuzkoa, eta haietatik 330 aztertu ditu Osalane, txostena egiteko.

- Amianto kentzeko lanak egiten ari ziren tokietan 295 landa-bisita egin dira (98 Araban, 43 Bizkaian eta 154 Gipuzkoan). Bisita horietatik 212 alde aurrekoak izan dira, eta gainerako 83ak, berriz, lan-planak bete direla egiaztatzeko

#### ► Prebentzio-zerbitzuen jardunaren kontrola

Osalanen jarduera-eremu horrek bi jarduketa-mota hartzen ditu, Osalane bere gain hartzen dituen eginkizun eta eskumenen arabera, laneko arriskuen prebentzioan jarduteko erakunde espezializatuei dagokienez.

- Alde batetik, Lan Agintaritzak eskatuta Osalane egiten duen jarduera dago, **prebentzio-zerbitzu mankomunatuak** eratzeke eta jarduteko baldintzak kontrolatzea helburu duena, eta horren ondorioz erakunde horietako 22ren jarduera aztertu da (8 Araban, 3 Bizkaian eta 11 Gipuzkoan).

- Bestalde, Osalane **osasun-eremuan** duen jarduera dago. Horrenbestez erakundeak, Lan Osasuneko Unitatearen bitartez, prebentzio-zerbitzuen gainean eskumena du, Osasun Agintaritzaren gisa.



· Horri dagokionez, EAEn diharduten **prebentzio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuen erregistroa** abian ipintzeko prozesuan aurrera egin dugu. Halaber, prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueraren auditoria edo kanpoko ebaluazioa egiteko pertsona edo erakunde espezializatuak sustatu dira, 2012an hasitako lanari jarraipena emanda.

· Era berean, prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduera **baimentzeko eta kontrolatzeko** zeregina gauzatu da, eta emaitzak honako taula honetan jasota daude:

Txostenak eta errekerimenduak	246 txosten
Ikuskapena eta kontrola	343 jarduera
Ebazpenak	153
Zigor-espedienteak	6 irekiak

► **Makinen segurtasunari buruzko zuzentaraua (2006/42/EE) betetzen dela zaintzea**

Osalanek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin lankidetzan, jarduketak egiten ditu makinek eta haien fabrikatzaileek, inportatzaileek eta komertzializatzaileek araudia betetzen dutela kontrolatzeko, makinen segurtasunerako zuzentarauaren esparruan 2011n sinatutako batera jarduteko protokoloa aplikatuta.

Lankidetzan horren esparruan, sei espediente proposatu ditu Osalanek: bi Gipuzkoan (prentsa bat eta karga-jasogailu bat) eta lau Bizkaian (bi prentsa, zubi-garabi bat eta plataforma jasotzaile mugikor bat).

**Enpresei aholkularitza eta laguntza teknikoa** ematearen alorrean Osalanek enpresa horiekin harreman zuzena izan nahi du –batez ere enpresa txiki eta ertainekin– eta

lantokietan egon nahi du, prebentzio-jardueraren garapenerako arazo eta gabeziak zein diren gertutik jakiteko, eta gai horietan aholkuak emateko.

Osalanek ildo horretan duen jardueran, zenbait sektore-tako eta jarduera-adarretako enpresak bisitatzeko kanpainak egiten dira, EAeko hiru lurraldeak hartuta. Kasu bakoitzean, helburuak diseinatzen dira sektorearen egoeraren eta identifikatutako beharren arabera.

2013an kanpaina hauek gauzatu ditugu:

► **Eraikuntza-lanak**

Osalanek kanpaina hori egiten du urtero, baina bisiten helburu eta irizpideak aldatzen dira, aurreko ekitaldietatik ateratako ondoriok oinarri hartuta. Lurralde-zentro bakoitzean aukeratzen dira kontrolatu beharreko obrak, lantokiak zabaltzeko jasotako jakinarazpenak kontuan hartuta. Halaber, abian direla beste bide batzuetatik jakin diren obrak bisitatzen dira.

2013ko kanpainan **3.426 eraikuntza-obra** bisitatu dira EAEn, lurraldeen araberako banaketa honi jarraikiz: 616 Araban, 1.609 Bizkaian eta 1.201 Gipuzkoan, obretako kontratak eta azpikontratak kontrolatuta.

Eraikuntza-sektorean berriro ere kanpaina egingo du Osalanek 2014an, istripu-tasen datuak eta lortutako emaitzak oinarri hartuta planteatutako helburuak lortze aldera.



► **Industrialdeak**

Osalanek kanpaina-mota hau azken urteotan egiten du, industrialde bateko langile teknikoek jarduketak ardatz hartuta, lana antolatzeko modu horrek baliabideak optimizatzen dituela eta laneko arriskuen prebentzioaren ikuspegitik emaitza hobeak ematen dituela iritzita.

2013an 11 industrialdetan jardun du Osalanek: 2 Araban, 3 Bizkaian eta 6 Gipuzkoan. Guztira, 173 enpresa bisitatu dira (81 Araban, 17 Bizkaian eta 75 Gipuzkoan) eta lokalak eta makinak zer baldintzetan dauden aztertu da.

► **Komunikazio-antenen instalazioen sektorea**

2012ko maiatzean hasitako kanpaina bukatu da et ontzat eman daitekeen balantzea lortu da. Bisita gehienak aurreko urtean egin baziren ere, kanpaina osatzeko azken landa-jardueraren bat egin da, bai eta sektorean erabiltzeko gidaliburu txiki bat ere, arrisku nagusiak eta prebentzio-neurriak identifikatzeko.

Kanpainaren emaitzak aurkeztu ziren 2013ko urriaren 29an Bilbon egindako jardunaldi tekniko batean.

2013rako aurreikusitako kanpainen artean, ez da burutu okintzako eta pastelgintzako lantegien sektorekoa. Metodologia diseinatu da, eta enpresak hautatu dira, baina kudeaketako barne-arazo batzuek eragotzi dute bisitak egiten hastea, eta 2014an egingo direla aurreikusi da.

# 2.5

## LAN-BALDINTZAK ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEAKETAN TXERTATZEA



### Hobekuntza integrala, prebentzioa enpresa-gestioaren osagaitzat hartzen duena

Jarduketa-eremu honetako helburuen xedea da, alde batetik, euskal enpresetan lan-baldintzak hobetzea, haietan eragiten duten hainbat alderdi aintzat hartuta. Bestalde, helburu lehenetsia da enpresa-kudeaketan laneko arriskuen prebentzioa integratzea, alderdi formal hutsetatik haratago, eta prebentzio-planak benetan ezartzeari bultzada ematea, laneko eta segurtasun eta osasunari lotutako alderdiak enpresaren jardueretan txertatuz, eta egitura hierarkikoaren inplikazioa lortuta.

Osalanek arrisku handienak sortzen dituzten faktoreetara bideratu du bere jarduera: makinak eta lanerako ekipoak, istripu gehien sortzen dituzten jarduerak, errepideko joan-etorriak... Halaber, emakumeen segurtasuna eta osasuna hobetzeko lanari eutsi diogu, eta genero-ikuspegiaren araberako laneko arriskuen prebentzioa sustatu dugu.

Hauek dira arlo horretan egindako jarduerak garrantzitsuenak:

#### ► Lantaldeak

- MAKINA BERRIAK EROSTEKO AHOLKUAK ematen dituen informazio-argitalpena argitaratu eta FITMAQ 2013 industriaren eta teknologiaren goi-bileran (Barakaldo, urriaren 1etik 4ra) banatu zen, bai eta Osalanen webgunearen bidez ere.

- Laneko ekipoak instalatzeko, mantentzeko eta konpontzeko lanetan arriskuak prebenitzeari buruzko liburuxka argitaratu da, 2012an egindako jardueren ondorioak bilduta. 2014an hedatzea aurreikusi da



► **Errepideko joan-etorrietan gertatzen diren lan-istripuen prebentzioa**

- Ahaleginik handiena egin da errepideko lan-istripuen alorrean informazioa eta sentsibilizazioa areagotzeko. Horretarako, **enpresan bide-segurtasuna kudeatzeari buruzko jardunaldian** parte hartu zuen Osalanek. APD elkarteak (Asociación para el Progreso de la Dirección) antolatutako jardunaldi hori 2013ko urrian izan zen, eta bertan parte hartu zuten Trafiko Zuzendaritzak, Laneko Ikuskaritzak eta enpresa pribatuek. Errepideko joan-etorrietako istripuak murrizte aldera, eragilean arteko lankidetzak bultzatzea Osalanen jomuetako bat izan da, eta etorkizunean ere hala izango da.

- Arlo horretan, estatu-mailako **lantalde** batean parte hartzen du Osalanek. LSHIN da lantaldearen buru, eta gizarte-eragileen, Administrazio zentralaren (Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta Gizarte Segurantzza) eta autonomia-erkidego batzuen ordezkariak parte hartzen dute.

- Horrez gainera, **EAE n gertatzen diren lan-istripuen** tipologia eta arazoan azterketan sakontzen jarraitzen dugu, istripu horiei dagokienez EAEko egoerari buruzko azterketa urtero eguneratzen dugu eta emaitzak hedatzen ditugu.

2014an lan-ildo horri eustea aurreikusi da. Izan ere, datuek adierazten dute errepideko lan-istripuek ez dutela behera egiten lantokietako istripuen neurri berean; istripu-kopuruak oraindik ere handiak dira eta murrizten ahalegindu behar dugu. Horren haritik, Trafiko Zuzendaritzarekin lankidetzan jardungo dugu ekitaldian zehar.

► **Laneko arriskuen prebentzioa, genero-ikuspegia aintzat hartuta**

2012an hasitako lan-ildoari ekin zaio berriz ere, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia aintzat hartzea bultzatzeko, emakumeen laneko segurtasun eta osasuna hobetzea helburu hartuta.

- Diziplina anitzeko lantaldea osatu da **EAEko emakumeen laneko arriskuen prebentzioaren egoera** sakon aztertzeko, eta analisi hori oinarri hartuta, eremu horretan jarduketak eta proiektuak proposatzeko, epe labur eta ertainean. Talde horrek egindako lanean oinarrituta, ekintza-multzo bat abian jartzea aurreikusten da. Ekintza horiek 2014ko Kudeaketa Planean eta ondorengo ekitaldietan gauzatuko dira, onetsiko den egutegiaren arabera

- Emakumeen laneko arriskuen prebentzioari buruzko jakintza sustatu da, Emakundek antolatutako **jardunaldi**

honetan parte hartuta: «Berdintasuna, osasun psikosoziala eta bikaintasuna», azaroaren 15ean Bilbon egina.

- **Emakunderekin** harremanetan jarri gara baterako ekintzak garatzeko. Oraingoz, elkarri aholku ematen diogu, emakumeen laneko osasunean eragiten duten gaiei buruz, baina lankidetzaren irismena areagotzea aurreikusi da, bi erakundeen artean egingo den hitzarmen baten esparruan.

Hurrengo urteetan lan-arlo horri eusteko eta sendotzeko asmoa du Osalanek. Lehen aipatutako lantaldearen azterketak hala egitea komeni dela adierazten digu, eta, horrez gainera, laneko segurtasun eta osasunari buruz laster onetsiko den Europar Batasuneko estrategian azpimarratzen diren jarduerar-ildo estrategikoetako bat da.



Ineteres handikoa eta prebentzioan ondorio garrantzitsuak izanagatik ere, aurten ezin izan da gauzatu MEP programa, makina eta laneko ekipo zaharrak berritzea helburu duena, lehengo tresnen ordez araudia betetzen duten elementu modernoago batzuk baliatzeko. Jarduera horretan SPRIrekin lankidetzan ari da Osalan. Aurrekontu faltagatik ezin izan da ekimen hori gauzatu; hala ere, 2014ko Kudeaketa Planean ekingo zaio berriro lan-ildo horri.

Substantzia kimikoei buruzko europar erregelamendua (REACH) EAEko enpresetan ezartzea sustatzeko ekintzak ere ez dira landu. Dena dela, Osalanek adierazi du arlo horretan sail eskudunekin lankidetzan jarduteko erabat prest dagoela.

## 2.6

### LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA LEHEN SEKTOREAN



#### Arrantzaren, nekazaritzaren eta basozaintzaren arloetan lehentasunezkoa da laneko arriskuen prebentzioa sustatzea

Lehen sektoreko laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko jarduerak lehentasuna izan dute Osalanentzat 2013an ere, eta arlo horretan askotariko ekimenak garatu ditu.

Sektorearekiko harremanak eta sektore horretan diharduten prebentzio-eragileekiko harremanak ere areagotu ditugu, aurreko urteetan EAEko eta beste autonomia-erki-dego batzuetako organo eskudunekin egindako aliantzak baliatuta. Lankidetzaren ondorioz, baterako ekimenak sortu dira, eta Osalanek, ekimen horiekin batera, bere kanpainak egin ditu, zenbait jarduera eta helburutara bideratuta.

Emaita nagusi gisa hauek azpimarratu behar dira:

- ▶ Arrantza-sektorean laneko arriskuak prebenitzeko planak garatzea (ITSASPREBEN), bai eta nekazaritza- eta egur-zuhaitzen hazkuntzaren sektorean arriskuak prebenitzeko planak ere (NEKAPREBEN), Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan, sektore horietan laneko arriskuen prebentzioa hobetzeko

Aurreko urteetan bezala, Osalanek parte hartu du laneko arriskuak prebenitzeko sektore-planen garapenean (Itsaspreben eta Nekapreben); izan ere, plan horien esparruan eskatutako laguntza teknikoak emateaz gainera, idazkaritza teknikoari dagozkien zereginetan aritu da. Horretarako, AZTI-TECNALIArekin lankidetzan aktiboan jardun da, sinatutako hitzarmenaren esparruan.

#### ITSASPREBEN

Osalanen eta AZTIren artean 2013an sinatutako hitzarmenaren esparruan, honako proiektu hauek landu dira:

- "Berdelaren arrantzan segurtasuna eta erosotasuna hobetzea, bai pita bertikalarekin, bai arrasteko arrantzan ateen maniobraren bidez".

- "EAEko portuetako arrantzari lotutako jardueretan (saregileak, neskatilak, paketatzaileak eta oinezko itsaski-biltzaileak) arrisku ergonomikoa eragiten duten faktoreen azterketa".

Proiektu horiek eta dagozkien txostenak 2014an aurkeztuko dira.

#### NEKAPREBEN

Honako lan-ekintza hauek gauzatu dira:

- Lanak eragindako arazo muskuloeskeletikoak EAEko ardi-azienden eta artisau-gaztagintzaren sektorean.

- Elikagaien industrietako laneko arriskuen prebentzioari buruzko sektore-txostenak. Gaztandegiak.



- Laneko arriskuen prebentzioa nekazaritza-sektorean (laborantza intentsiboa) eta abeltzaintza-sektorean (esne-behiak).

ITSASPREBEN eta NEKAPREBEN planak indarrean dauden bitartean Osalanek plan horietan lankidetzan jardun- g duela aurreikusten da.

► **Kantauriar erlaitzeko autonomia-erkidegoetako lane- ko segurtasun- eta osasun-erakundeekin lankidetz- a, arrantza-sektorean laneko arriskuen prebentzio- rako proiektuak gauzatzeko**

Kantauriko beste hiru autonomia-erkidegoekin lankid- ezan jarraitu du Osalanek, arrantza-sektorean lane- ko segurtasun eta osasuna sustatzeko.

- Arrantza-sektoreko langileen **osa- suna zaintzeko gidaren** 3. zatia egin da, alturako eta altura han- diko arrantza-artei buruzkoa. Dokumentu hori amaituta eta argitaratuta dago, eta banaketa 2014ko otsailean hasiko dela au- rreikusi da.

- Gaur egun, **itsasbazerreko in- guraketa-modalitateko arris- kuen ebaluazioaren** aplikazio praktikoaren adibide batean lanean dihardu Osalanek, lan- gileen osasuna zaintzeko gidan erabilitako metodologia oinarri hartu- ta; zehazki; orduan erabilitako lanpostuen faseen, egin- kizunen eta azpieginkizunen matrizeak baliatuta.

Amaituta eta berrikusteko fasean daude segurtasuna- ren, higienezaren eta ergonomiaren alorreko arriskuen

ebaluazioak, eta arrisku psikosozialen ebaluazioa gara- pen-prozesuan dago.

Azken hori amaitu ostean, emaitzak txosten batean jaso- ko dira, eta haren hedapenari eta zabalkundeari ekingo zaio. Fase hori 2014rako planifikatuta dago.

► **Lehen sektoreko enpresetara bisitak egiteko kanpainak, lane- ko arriskuen prebentzio- rako jardueretan aholkulari- tza eta laguntza tekniko- a emateko.**

Osalanek honako kanpaina hauek egin ditu lehen sektorean:

- **EAE n baxurako arrantzan diharduten ontzi eta armado- reak bisitatzeko kanpaina**

Kanpaina hori 2011n hasi zen, eta 2012an eta 2013an ja- rraipena eman zaio, baina beste helburu batzuekin, eta metodologia egokituta, sektoreko errealitatearen arabera.

Kanpaina hori gauzatzeko zailtasun handiak daude, jar- dueraren beraren ondorioz; izan ere, bisitak egiteko on- tziak portuan egon behar dute, eta arrantzale-kofradiek- in koordinatu behar dira. Kanpainak 2014an jarraituko du.



- **Nekazaritzako sasoiko lanaren urteko kanpaina, EAEko Era- kunde arteko Mahaiak prestatutako 2008-2012rako Sasoiko Lanaren Arretarako II. Plan Integralaren testuinguruan.**

Arabako patataren kanpainetan eta Arabako eta Gipuz- koako mahats-bilketan parte hartzen duten sasoiko lan- gileen eta enpresen artean lane- ko arriskuen prebentzioa sustatzeko lanean aritu gara berriz ere.

Osalanek urtero egiten du kanpaina hori: informazioa ematen du; enpresei, langileei eta erakunde publikoei aholkularitza tekniko- a ematen die; lane- ko arriskuak pre- benitzeko jarduera egiaztatzen du, eta gertatutako lan- is- tripuak eta gaixotasun profesionalak aztertzen ditu.



Kanpaina horretan 28 bisita egin dira upeltegietara eta kooperatibetara (24 mahasgintzako eta ardogintzako azpisektorekoak eta 4 patataren azpisektorekoak). Halaber, elkarrizketak egin dira 2 kuadrilla-batzarrekin, 6 osasun-zentroekin (3 Araban eta 3 Gipuzkoan), zenbait prebentzio-zerbitzuekin, txakolinaren bi jatorri-deiturarekin eta UAGArekin. Berariazko txosten bat prestatzen ari da Osalan, lortutako emaitzak biltzeko.

Gainera, mahats-bilketari buruzko triptikoa euskaratu da. Enpresaburuaren obligazioak.

• **Ardoa eta txakolina ekoizten duten enpresetara bisitak egiteko kanpaina.**

2012an hasi zen kanpaina, eta Arabako eta Gipuzkoako mahasgintzako eta ardogintzako azpisektoreko 17 enpresa bisitatu dira (ardoa egiten duten 10 enpresa eta txakolina egiten duten 7 enpresa).

• **Egur-zuhaitzen hazkuntzan diharduten enpresak bisitatzeko kanpaina.**

Kanpaina honen esparruan bisitatu dira egur-zuhaitzen hazkuntzan diharduten 16 enpresa (10 Araban eta 6 Gipuzkoan); beste batzuetan ere jardutea aurreikusi da, eta haiekin harremanetan jarri gara dagoeneko.



Balantze gisa, egiaztatu dugu, berriz ere, sektore honetan laneko arriskuen prebentzioan jarduteko zailtasun handiak daudela. Izan ere, hainbat faktorek baldintzatua baita: urtaroak, klimatologia, lan-baldintza aldakorrak eta langileen egonkortasun urria (neurri handi batean etorkinak dira). Hala ere, jakin badakigu Osalanen jarduerak eragin positiboa dutela sektorean, eta epe ertainean langileen segurtasun eta osasuna argi eta garbi hobetuko direla ikustea espero dugu.

Sektorean egindako lanari 2014an jarraipena emateko asmoa du Osalanek, egoera argiago ikus dadin, eta, batez ere, dibulgazio-ekintza gehiago egingo dira, enpresaburuari eta langileei helarazteko arriskuei, eragiketei, betebeharrei eta beste hainbat alderdiei buruzko informazioa, eta horretara



rako baliatuko dira internetek ematen dituen aukera paregabeak. Horrenbestez, sektoreari buruzko berariazko atari bat abian jartzeko lanetan ari gara, eduki interesgarriak jartzeko, eta eragileek parte hartzeko eta prebentzio-esperientziak trukatzeko plataforma izan dadin.

# 2.7

## JAKINTZAREN SORRERA HEZIKETAREN ETA IKERKETAREN BITARTEZ



### Berariazko prestakuntza, arlo guztietan ezagutza sustatzeko

Osalaren aburuz, laneko arriskuen prebentzioa eraginkorra izateko ezinbestekoa da langileen segurtasun eta osasunean eragiten duten hainbat alderdi sakon ezagutzea. Ezinbestekoa da, inplikaturako pertsonak izateaz gainera, nor bere gain hartzen dituen prebentzio-funtzioak betetzeko gaitasun nahikoa izatea, zein berari dagokion mailan, eta betetzen duen rolaren arabera. Hain zuzen ere, prestakuntza-premiak askotarikoak direlako, erakundeak estrategia desberdinak planteatu ditu, interesa sortzen duten berariazko taldeak helburu hartuta.

Laneko arriskuen prebentzioko egile eta eragileak jardueran aritzeko oinarrizko eta berariazko gaietan prestatzeaz gainera, jakintza sortu behar da premia duten eremu eta diziplinetan, berriak direlako (ezagunak ez diren arriskuak, berriki garatutako teknologiak), oso alderdi zehatzak ardatz hartzen dituztelako (kolektibo jakin batzuk) edo arrisku txikikotzat jo ohi diren jarduerari buruzkoak direlako. Jakintzaren sorkuntza hori ikerketa-proiektuen garapenaren bidez egiaztatzen da, eta emaitzei ahalik eta zabal-kunde handiena emanez.

Hauek dira arlo horretan gauzatutako ekintzak, labur:

► **E-learning prestakuntza, laneko arriskuen prebentzioari buruz, open source formatuaren bidez (Moodle)**

Osalaren jardueraren helburua da laneko arriskuen prebentzioari buruzko e-learning prestakuntza bultzatzea, erakundearen webgunearen bidez ikastaroak emanez. Lehen urrats gisa, teknikari batzuk gaitu dira open source formatuan (Moodle) eta kanpoko enpresa bat hautatu da lehenengo ikastaroaren diseinuan laguntzeko. Ikastaro hori 2014an ematea aurreikusi da.

► **Eraikuntzako prebentzioko ordezkarien prestakuntza eta ikasgela iraunkorra**

- **Laneko arriskuen prebentzioa, prebentzioko ordezkarietarako eskuliburua** prestatzeko lanak amaitu dira jada, eta 2014ko martxoaren 13an Bilbon egindako jardunaldian aurkeztu da. Eskuliburua erakundearen webgunean argitaratuko da, eta etorkizunean antolatuko diren prestakuntza-ikastaroetarako prestakuntza-tresna izango da.

- EAEko **prebentzioko ordezkarien** prestakuntza kudeatu da, eta honako taula honetan jasota daude prestakuntza jasotako pertsonen datuak.

**PREBENTZIOKO ORDEZKARIENTZAKO PRESTAKUNTZA (2013)**

Gaia	Ikastaro-kop.	Ikasle-kop.	Zenbatekoa
Arauekikoa	25	384	32.642,50 €
Teknikoa	09	154	23.625,00 €

- Halaber, eraikuntza-sektoreko langileen prestakuntza bultzatu da, Bizkaian eta Gipuzkoan abian dagoen **ikasgela iraunkorrek** emandako ikastaroen bidez.

**IKASGELA IRAUNKORRAREN BIDEZKO PRESTAKUNTZA (2013)**

Ikastaro-kop.	Ikasle-kop.	Zenbatekoa
18	275	15.921,00 €

2014ra begira, prebentzio-ordezkarien oinarritzko prestakuntzarako diru-laguntzen deialdia prestatzen ari gara. Izan ere, 300.000 €-ko partida kudeatuko du Osalane, alderdi juridikoa eta alderdi teknika irakasteko.

► **Laneko segurtasun eta osasunari buruzko alderdiei buruzko jakintza bultzatzeko jardunaldi teknikoak antolatzea**

Laneko arriskuen prebentziorako gai espezifikoiei buruzko hamabi prestakuntza- eta dibulgazio-ekitaldi antolatu ditu Osalane (ikus ondorengo taula).

Berrikuntza gisa, ekitaldi horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema garatu eta ezarri du erakundeak, parte-har-tzaileek emandako kalifikazioak oinarri hartuta, eta datu horiek baliatuta identifikatu da zer hobekuntza egin daitezkeen. Aurtengoan ere, Osalane sustatutako ekitaldietara etorritako publiko ugariak adierazten du interes handia sortzen du-tela ekitaldi horiek, eta oso baliagarriak dira, prebentzioan diharduten profesionalen iritziz.



## OSALANEK 2013RAKO KUDEAKETA-PLANAREN ESPARRUAN ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

EKITALDIA	EGUNA	TOKIA	HELBURUA
Lan-gosaria metalaren sektoreko adituekin, «Formación de Seguridad Laboral» aldizkariak lagunduta	Maiatzaren 19an	Osalan Bizkaia	Metalaren sektoreko langileen arrisku nagusiak tratatzea: silikosia, zarata, asaldur muskuloeskeletiko eta psikosozialak.
Laneko segurtasun eta osasunari buruzko III. Uda Ikastaroa, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Osalanek lankidetzan antolatua.	Uztailaren 18an eta 19an	Donostian	Gizartea laneko arriskuen prebentzioari buruz sentsibilizatzea eta kontzientzia harraraztea, gaiari buruzko jakintza eta esperientzien berri emanez. Zehazki, gai hauei buruz: - Gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazteko sistema. - Ergonomia eta arazo muskuloeskeletikoak. Ebaluazioa eta esperientzia ergonomiko praktikoa.
EAEko istripu-tasei eta gaixotasun profesionalen buruzko urteko txostenen aurkezpena. 2012. urtea	Irailaren 20an	Bilbon	EAEko istripu-tasei eta gaixotasun profesionalen buruzko 2012ko datuen aurkezpena eta analisia.
FITMAQ 2013. Industriaren eta teknologiaren goi-bilera 2013.	Urriaren 1etik 4ra bitartean	Barakaldon	Osalanen stand-een aurkeztuko da makina berriak erosteko aholkuen dokumentua.
ERANET-SAFERA europar proiektuaren aurkezpena, Osalanen ikerkuntzarako diru-laguntzen esparruan	Urriaren 4an	Zamudion	Industria-segurtasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko ikerkuntzarako diru-laguntzak, EEn ondorioak dituztenak.
Enpresan bide-segurtasuna kudeatzeko jardunaldia.  APD elkarteak (Asociación para el Progreso de la Dirección) antolatuta, Osalanekin eta MAZ Sociedad de Prevención erakundearekin lankidetzan.	Urriaren 16an	Bilbon	Enpresan bide-segurtasuna kudeatzeko zenbait ekimenen azalpena. Egungo egoeraren diagnostikoa eta enpresa-esperientzia praktikoa.

## OSALANEK 2013RAKO KUDEAKETA-PLANAREN ESPARRUAN ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

EKITALDIA	EGUNA	TOKIA	HELBURUA
Jardunaldi teknikoa: EAEko sektore-kanpainak Laneko arriskuen prebentziorako elkarlanean.	Urriaren 29an	Bilbon	Osalanez azken urteotan egindako sektore-kanpainen emaitzak eta ondorioak hedatzea, lanpostuen segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzeko prebentzio-neurriak eta jardunbide egokiak aplikatzeko.
Jardunaldi teknikoa: Osasuna sustatzearen bidez enpresa osasungarria (Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta AENOREkin lankidetzan)	Azaroaren 8an	Bilbon	Osasunaren sustapena enpresetan: enpresa osasungarriari buruzko AENOREn ISO arauaren aurkezpena, eta enpresa batzuetako esperientziak.
Laneko psikosozioiologiari buruzko IV. jardunaldiak, Osalanez antolatutak	Azaroaren 21ean eta 22an	Bilbon	Faktore psikosozialei lotutako arriskuen zein langileen osasunean eragin ditzaketen ondorio kaltegarrien prebentzioa eta jakintza sustatzea. Jardunaldien gai monografikoa: laneko estresa Mitoak eta ebidentziak.
Prebentzio-zerbitzuetako osasun-arloko langileentzako prestakuntza-planari buruzko jardunaldia: laneko historia klinikoaren eredu berria (Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Medikuz Zientzien Akademiarekin lankidetzan).	Otsailaren 19an	Bilbon	Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileen prestakuntza-plana aurkezteko ekitaldia, sektoreko profesionalen parte-hartzea sustatzea helburu hartuta, baterako plan egonkor eta jarraitua prestatzeko. Halaber, jardunaldian aurkeztu da laneko historia klinikoaren eredu berria, prebentzio-zerbitzuen elkartearekin batera garatua.
2013an Osalanez finantzatutako ikerketa-proiektuak aurkezteko jardunaldia.	Otsailaren 28an	Bilbon	Zenbait erakundek (SGS Tecnos, Lantegi Batuak, Tecnalia, Onkologiko Fundazioa, Ingema eta Ermuko Udala) egindako ikerketa-proiektuen emaitzen aurkezpena.
Laneko arriskuen prebentzioa, prebentzioko ordezkariarentzako eskuliburuaren aurkezteko jardunaldia	Martxoaren 13an	Bilbon	Eskuliburuaren aurkezpena: aurrekariak eta egungo egoera; eskuliburuari buruzko alderdi teknikoak.

► **Prebentzio-zerbitzuetako eta Osakidetzako osasun-langileentzako prestakuntza**



- **Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza-plana** garatzea Osalanen ekimena da, Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Medikuzientzien Akademiarekin lankidetzan.

Erakunde horiekin adostu dira prestakuntza-planaren edukiak, eta plan hori prebentzio-zerbitzuei aurkeztu zaie, 2014ko otsailaren 19an horretarako egindako jardunaldian, haien parte-hartzea eta ekarpenak eskatuta.

- Halaber, **Osakidetzako osasun-langileentzako prestakuntza-plan bat** diseinatzeko eta ezartzeko lanetan aritu gara, lehendik dagoen prestakuntza oinarri hartuta, eta eduki berriak, formatua eta abar proposatu ditugu.

Proposamena Osakidetzari aurkeztu diogu, arreta espezializatua (pneumologoak, gaixotasun profesionalaren susmoa informazio-sistemen bidez jakinarazteari dagokionez) zein lehen mailako arreta helburu hartuta.

Arreta espezializatuan diharduten osasun-langileekin prestakuntza-saioak hasi dira Mendaroko Ospitalean, eta gainerako ospitaletan jarraitzea aurreikusi da, Osakidetzak baimena eman ostean.

► **Barruko mediku egoiliarren (BAME) prestakuntza Lan Medikuntzaren alorrean, Osakidetzarekin berariaz adostutako akordioaren bidez**

Osalango Lan Osasuneko Unitatean prestakuntza arautua, espezializatua eta kalitatekoa eman zaie EAEko Laneko Medikuntzako 5 barruko mediku egoiliarrei (BAME), irakaskuntzarako gune egiaztatu eta baimendu gisa, fun-

tsean espezialitate horretako EAEko irakaskuntza-unitatearen bidez, beste irakaskuntza-unitate batzuekin (Asturias eta Andaluzia) unean uneko akordioak egin badira ere.

Horretarako, BAME prestakuntzari dagokionez indarrean dagoen araudia berrikusi da, eta laneko medikuntzako BAME prestakuntza-programa egin da, txandakatze-irizpideak bateratzea helburu hartuta, betiere Osakidetzako irakaskuntza-unitateko laneko medikuntzako ikasketaburuarekin koordinatuta. Txandakatzeari dagokionez, BAMEren ebaluazio-dokumentu bat prestatzen ari da OSALAN, esperientzian oinarriturik hobekuntzak egitea helburu hartuta.

► **Laneko arriskuen prebentziorako goi-teknikarien prestakuntza, unibertsitateekin lankidetzan**

Lan Harremanen Eskolak ematen duen laneko arriskuen prebentziorako masterrean OSALANek parte har dezan UPV-EHUrekin sinatutako hitzarmenean jasotako ekintzen garapenak jarraitzen du. Zehazki, ekintza hauek egin dira:

- 2012/2013 ikasturtean: Kanpoko irakasleek emandako irakaskuntza (25 irakaslek parte hartuta) ordaintzeko diru-laguntza.

- 2013/2014 ikasturtean: Osalanek ikasturte berriaren aurkezpen ekitaldian parte-hartzea, irailaren 23an.

Mondragon Unibertsitatea ere Osalanekin harremanetan jarri da, datorren ikasturtean jarri nahi duten laneko segurtasunari buruzko masterrean lankidetzan jarduteko.

► **Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko jakintza areagotzeko ikerketa-proiektuak bideratzeko diru-laguntzak**

- EHAAn 2013ko abenduaren 30ean argitaratu zen laneko arriskuen prebentzioaren alorreko ikerketa-proiektuetarako **diru-laguntzen deialdia**. Proiektuei 2014an ekin behar zaie, gaiari buruzko jakintza areagotzea eta ikerkuntzaren emaitzak prebentzioaren eguneroko jardunera transferitzea helburu hartuta.

Halaber hartzen dituzte diru-laguntzek beren barnean SAFERA europar proiektuaren eremuan exekutatzaren ikerketa-proiektuak.



Hornidura ekonomikoa 500.000 eurokoa da: 250.000 euro 2014rako ordain-kreditu gisa, eta 250.000 euro 2015erako konpromiso-kreditu gisa. 500.000 euro horietatik, 100.000 euro erabiliko dira SAFERA europar proiektuarekin lotutako lankidetzak-konpromisoari aurre egiteko, eta gainerako 400.000 euroak, berriz, Osalanek laneko arriskuen prebentzioaren arloan onartutako ikerketa-, garapen- eta berrikuntza- proiektuetarako.

2014ko urtarrilaren 31n amaitu zen eskabideak aurkezteko epea, eta 93 proposamen jaso ziren. Haietatik 4 SAFERA programaren esparrukoak ziren, eta 89 Osalanen diru-laguntzen esparrukoak. Administrazio-dokumentuak berrikusi dira, eta ondorengo hilabeteetan balioespen-batzordeak ebaluatuko dituzten proposatutako proiektuak. Horrenbestez, 2014ko ekainaren 30erako deialdiari buruzko ebazpena emango dela aurreikusi da.

- Bestalde, **2012an finantzatutako** eta 2013an zehar gauzaturako **ikerketa-proiektuen** emaitzak aurkeztu dira. Proiektu horietako batzuen emaitzak, interes handia dutela iritzitakoak, 2014ko otsailaren 28an egindako dibulgazio-jardunaldi batean ezagutzera eman dira.



► **Errepideko joan-etorrietan gertatzen diren lan-istripuei dagokienez EAEn dagoen egoerari buruz Osalanek egingandako azterlana eguneratzea, 2012ko datuak baliatuta**

EAEn gertatutako errepideko lan-istripuei buruzko azterlana aurtengoan ere eguneratu dugu, eta Osalanen webgunean argitaratuko da.

Datozen urteetan lan horri jarraipena ematea aurreikusi da, gure autonomia-erkidegoan errepideko lan-istripuen bilakaera aztertzeko, eta istripu-kopuruak behera egitea eragingo duten ekintzak planifikatzeko.

Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko jakintza areagotzeko egindakoa balioesteko, oso positibotzat jotzen dira hainbat ekimenetan lortutako emaitzak, eta arlo hori gehiago landuko da etorkizunean.

# 2.8

## OSASUNAREN ZAIN-TZA



### Enpresetako prebentzio-jardueraren barruan txertatutako ekintzak

Arlo honetan planteatutako helburuen xedea da langileen osasunaren kalitateko zain-tza bermatzea, berariaz, bakoitzak dituen arriskuen arabera, eta enpresen prebentzio-jardueran integratuta. Horretarako tresnak garatzen ari gara (protokoloak, gidak eta gomendioak) laneko arriskuen prebentzioari lotutako osasun-arloan diharduten organo eta eragileekin lankidetzan.

Aurreko ekitaldietan bezala, amiantoaren eraginpean agian egondako langileen arazoak izan da lan-ildo nagusietako bat. Eginkizun horretan Osalanen eta GSINren ahaleginak bateratu dira, amiantoaren erabilerarekin lotutako patologien eraginpean daudenei arreta hobea emateko. Halaber, amiantoaren eraginpean egondako langileen okupazio osteko osasunaren zaintzaz arduratu gara, Osakidetzarekin lankidetzan.

Osasunaren zaintzaren arlo horretako jarduera ilundu duen alderdi bakarra da Osalanek Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin harreman onak izan arren, harreman horiek ez direla ekintza zehatz bihurtzen erakunde autonomo honek nahi bezain bizkor. Horren haritik, Osasun Sailak, Osalanek eta Osakidetzak osatutako hiruko batzordearen bilerak egiten dira, baina horietan adostutakoa ez da beti baterako ekintza gisa mamitzen. Dena dela, Osalanen lanean jarraituko du, organo horien arteko harremanak eta lankidetzak ahal den neurrian estutzeko; izan ere, haien partaidetzarik gabe zaila da erakundearen proiektu asko burutzea.

Osasunaren zaintzaren alorreko jarduerak eta emaitzak ondorengo lerroetan laburbilduta ageri dira:



► **Zur-hautsa arnasten duten langileentzat berariazko osasun-ikuskaritzako protokoloa**

Protokoloaren testuaren idazketa amaitu da, eta 2014ko otsailean prebentzio-zerbitzuek eta sindikatuek testua berrikusteko eta ekarpenak egiteko aukera izango dute. Martxoaren hasieran protokoloa amaituta egongo dela aurreikusten da, handik aurrera argitaratzeko eta hedatzeko moduan.

► **Enpresetan droga-mendekotasunen prebentzio-planak ezartzeko oinarritzko orientabideen gida**

2011n hasitako zenbait urteko lanaren azken faseari ekin zaio. Horrenbestez, gidaren zirriborro bat amaituta dago, enpresetan droga-mendekotasunen prebentzio-planak ezartzeko orientabideak ematen dituen, eta zirriborro hori barrutik eta kanpotik berrikusteko prozesua hasi da.

Kanpotik berrikusi ondoren argitaratuko da gida, eta 2014ko azken hiruhilekoan hedatuko dela aurreikusi da.

► **Laneko historia medikoa, langile-denboran eta geroago ere langileak lagungarri izango duena**

Zenbait urteko proiektu horren garapenean aurrera egin dugu

- Dokumentuaren azken berrikuspina eta aldaketa egin zen, kanpoko eragileekin batera, eta horren ondoren, pilotatzea baztertu zen. Horren orde, taldeko kideek historietako datuk, informazio-iturriak, betetzeko arazoak eta konponbideak berrikusi ziren, eta hori guztia txosten batean jaso zen.

- Laneko historia medikoa betetzeko eskuliburua amaitu ostean, prebentzio-zerbitzuetan banatzea proposatu zen, bai eta behin betiko argitalpena araua burutu ostean egitea ere. Hedapen hori 2014ko otsailaren 19an egindako jardunaldian gauzatu zen.

Etorkizunari dagokionez, 2014 proba-urtea izango da: ereduaren ezarpenaren jarraipena egingo da, prebentzio-zerbitzuetara egindako bisiten bidez. Aldi berean, erakundeen artean datuak elkarri helarazteko soluzio informatikoak bilatu nahi dira, eta araudiaren lehen zirriborroa egin nahi da.

► **Osasun-arrazoiak direla-eta denbora luzean lanera joan ez diren langileei berriro lanean hasten direnean osasun-ebaluazioa egitea**

Osalanek bere gain hartzen du osasun-arrazoiak tarteko direla denbora luzez falta izan ondoren berriro lanean

hasten diren langileen osasun-ebaluazioa egiteko obligazioa betetzen dela egiaztatzeko eginkizuna. Jarduera hori lanerako ezintasun iragankorraren foroaren eremuan garatu da, eta zenbait bileran egin dira jada. Azpimarratzeko berrikuntza da proiektuan sartu direla, halaber, buruko osasunarekin lotutako gaixotasunak.

► **Marmol-lantegietan silize-hautsa arnasten duten langileen osasun-zaintzaren kalitatearen ebaluazioa**

Marmol-lantegietan silize-hautsaren eraginpean egondako langileen osasun-zaintzaren kalitatearen ebaluaziorako kanpaina diseinatu da eta egikaritzeari ekin zaio. Aurreikusten da 28 enpresetako 166 langileren osasuna zaintzeaz arduratzen diren prebentzio-zerbitzuetan jardungo dela.

Kanpainaren metodologia diseinatu ostean, marmol-lantegiak hautatu eta dokumentazioa eskatu zaie, eta prebentzio-zerbitzuekin harremanetan jarri eta galdesortak bidali zaizkie, erantzun diezaieten.

Prebentzio-zerbitzuetan bisitak hasi dira, eta 2014an horiekin jarraitzea aurreikusi da.

► **Osasun kolektiboa zaintzeko oinarritzko ildo eta irizpideak**

Lantaldea osatu ondoren, lehen zirriborroa idatzi zen, eta 2013ko bigarren seihilekoan berrikusi eta eztabaidatu zen, harik eta adostasuna lortu zen arte. Behin betiko dokumentua kanpoko talde bati aurkeztea aurreikusi da, kontrastatzeko.

2014an amaitzea eta hedatzea aurreikusi da.



► **Lanak eragindako minbizia**

Osalanek zenbait ekintza hasi ditu eremu horretan, eta eremu lehenetsizat jotzen du, jakintza eta esperientzia oinarri hartuta; izan ere, hurrengo urteetan langileen artean lanaren ondorioz sortutako minbizi-kasuak areagotuko direla espero da. Halaber, kasu horiek aitortzea sustatzen du Osalanek.



Horren ildotik, proiektu jakin batzuk lantzen ari gara, eta, aldi berean, lanak eragindako minbiziaren zaintza epidemiologikorako sistema ezartzeko oinarriak jartzen dira, gaur egun kezkarrienak diren kasuetatik hasita: mesoteliomak eta sinu paranasaletako minbizia. Jarduera horietan honako aurrerabide hauek egin dira:

- Laneko segurtasun eta osasunaren ikerketarako era -kunde eta zentroen sarearekiko jarduera (RICISST), **silizeak minbizia eragiten duela** adierazten duen ebidentziaren sintesia.

2011n hasitako lan hori amaitu da: ebidentziaren sintesiaren idazketa amaitu da, eta azterlana LSHINen zuzendaritzara bidali da, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Behatokiaren webgunean ziurrenik argitaratzeko, eta OSALANen webgunearen bidez hedatzeko.

- **Lanak eragindako minbiziaren ikuskaritza epidemiologikoa**; zehazki, mesoteliomarena eta sinu paranasaletako minbiziarena.

Osalan laneko minbiziaren zaintza epidemiologikoa eta jarraipena sendotzeko ahaleginean ari da. Horretarako ezinbestekoa da Osakidetzarekin eta Osasun Sailarekin adostasun bat lortzea, Osalani zuzenean eta berehala jakinarazteko EAEn diagnostikatutako patologiak, dagozkion eragileen edo faktore-arriskuen eraginpean egon izana ikertzeko.

Tamalez, hitzarmenik ez da oraindik lortu, baina lortzeko bidean urratsak eman dira. Horrenbestez, Osasun Sailak, Osalanek eta Osakidetzak osatutako hiruko batzordearen bileran adostu zen lantalde misto bat eratuko zela, Osasun Sailak eta Osalanek osatua, diagnostikoei buruzko informazio guztia Osakidetzako arreta espezializatua emateko zerbitzuetatik Osalanera helarazteko eta eraginpean egon izana ahalik eta azkarren jakiteko aukerak ebaluatze aldera. 2014an arlo horretan emaitzak lortzea espero dugu.

► **Amianto lanean erabiltzeagatik sortutako gaixotasunen arazoari buruzko jarduerak**

Osalanek, azken urteotan, amiantoaren eraginpean lanean aritutakoen arazoak tratatzeko jardunean ari da,




eta 2014an eta ondorengo urteetan ere zeregin horretan jarraitzea aurreikusitua da.

Jarduera horiek barnean hartzen dituzte aitortutako kasuen ikerketa, eraginpean egonak izan litezkeen langileen osasuna prebentzioz zaintzea, eta beste administrazio eta erakunde batzuekin lankidetzan jardutea, hartara kaltetuei harrera hobea emateko eta hasitako espedienteak hobeto kudeatzeko.

Jarduera hauek egin dira:

• **Amiantoaren eraginpean egoteagatik eragindako gaixotasunen ikerketa.**



Iraganean amiantoaren eraginpean egonak litezkeen langileei diagnostikatutako gaixotasunen arteko loturak ikertu dira, Osalanek horretarako garatutako berariazko metodologia aplikatuta.

Osalanek **46** ikerketa egin ditu guztira ildo horretan 2013an: 15 Araban, 14 Bizkaian eta 17 Gipuzkoan.

• Amiantoaren eraginpean egonak litezkeen langileen zerrenda, langile-bizitzaren ondorengo osasun-zaintzaren ondorioetarako.

Osalanek amiantoaren eraginpean egonak litezkeen langileen zerrenda kudeatzen du, eta horren xedea da langile-bizitzaren ondorengo osasunaren zaintza eskaintzea kolektibo horri.

2013ko jardueraren ondorioz, **377** pertsona sartu dira zerrendan, eta hauek dira haiei buruzko datuak:

- Jardunean ari diren pertsonak: 27
- Langile-bizitza amaitu dutenak: 350

Langile-bizitza ondorengo zaintzarako 117 eskaera izapidetu dira, eta hauek izan dira emaitzak:

- Izapidetan: 31
- Osakidetzaren zaintzapean: 57
- Beste autonomia-erkidego batean zaintzapean: 2
- Ez dute onartu: 24
- Helbide ezezaguna: 2

• Amiantoari buruzko estatu-mailako lantaldean parte hartzea

Osalanek Batzorde Nazionalako amiantoaren lantaldeko bileretan parte hartzen du, lankidetzan jardutea eskaintzeko, eta gaian eskumena duten administrazio eta erakunde guztiekin batera lan egiteko.

Batzorde horrek berriki onetsi du amiantoa dela-eta Osasuna Zaintzeko protokoloa.

• Amiantoarekin lan egin duten langileen lan egin ondoko osasun-ikuskaritzako praktika klinikorako gidaren prestakuntza.

Ekimen horrek ez du guk nahi dugun erritmoan aurrera egin, eta, oraingoz, hozi-egoeran dago. Motiboa da proiektuen inplikatu beharreko hirugarren aldean lehentasunak ez daotzela bat Osalanen lehentasunekin.

Osakidetzako Osasun Laguntzako Zuzendaritzaordearekin harremanetan jarri gara, eta lan horretarako profesionalak esleitzeko konpromisoa hartu du. Hala ere, konpromiso hori ez da oraingoz bete; hortaz, gida egiteko lantaldea ez da oraindik eratu.

Aurrekoa alde batera utzita, SVNPAR-ENAPEko udaberriko X. tailerrean parte hartu du Osalanek, neumologoen eta Osakidetzako Osasun Arretako Zuzendaritzaordearen aurrean, proiektuarekiko atxikimendua lortzeko.

Dena dela, 2014an garatzeko jarduera izango da.

Laburbilduz, osasunaren zaintzaren alorrean egindako lana ontzat ematen da, eta ezarritako helburuak lortzeko bidean urrats gehiago eman ez badira, ez da izan Osalan saiatu eta ahalegindu ez delako. Hortaz, datorren urtean ildo berean jarraituko dugu.

# 2.9

## LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARAKO JARDUKETEN KALITATEA



### Helburua: prebentzio- jardueraren kalitatea hobetzea

Enpresetan laneko arriskuak prebenitzeko jardueren kalitateak, neurri batean bakoitzaren prebentzio-erakundeen mendekoa denak, Osalanen kezka eragiten du. Lantokietako jardueretan gure profesionalak gai horretan detektatutako gabeziak dira arrazoia.

Erakundeak arazo hori landu du, eta berariazko kanpaina egin zuen, 2012an hasi eta 2013an amaitu zena. Horren osagarri, laneko arriskuen prebentziorako oinarrizko tresnaren gabezia nagusiei buruzko azterketarekin osatu da. Lan hori guztia txosten batean ageri da, eta oinarritzat hartuko da autonomia-erkidego honetan prebentzioaren kalitatea hobetuko duten ekintzak diseinatzeko.

Halaber, enpresei, laneko arriskuaren prebentziorako profesionaleri eta prebentzio-erakundeei laguntzeko ahalegina egin dugu, arriskuak identifikatzeari eta tratatzeari dagokionez. Horretarako tresna praktikoak ere ematen ditugu, eta horrez gainera, aholkularitza eta laguntza tekniko espezializatua.

Jarduera hauek egin dira:

#### ► EAEko enpresetan laneko arriskuen prebentzioa hobetzeko kanpaina

EAEko enpresetan laneko arriskuen prebentzioa hobetzeko kanpainaren 2. fasea bete da. 2012an hasia zen, prebentzio-ekintzaren kalitatea aztertzeko, gabeziak identifikatzeko eta hobekuntzak proposatzeko.

Bigarren etapa honetan, bisitatutako enpresek hartutako neurrien jarraipena egin da, Osalanek emandako gomendioei lotuta. Horrenbestez, kanpainaren 1. fasean jardundako 138 enpresetatik 82rekin harremanetan jarri gara, zeinetan aurkitutako gabeziak nabarmenak baitziren. Kasuren batean lantokia berriro bisitatu da, baina, oro har, enpresek eta haien prebentzio-zerbitzuek aurkeztutako dokumentazioa baliatuta egin da jarraipena.

Jarduketa horien ondorioz 67 txosten egin dira. 22 kasutan ezin izan da enpresaren jardura ebaluatu; funtsean arduradunek ez dutelako igorri igorri beharreko dokumentazioa, eta kasuren batean, jardura utzi zuelako.

Osalanen gomendioen aurrean enpresek izandako erreakzioa izan da ebaluatzeko 6 mailako eskala baten neurrikoa. Gaur egun, txostena prestatzeko fasean daude, eta emaitzen txostena eta proposatutako ekintzak egoteko fasean gaude.



#### ► Laneko arriskuen identifikazioa eta tratamendua hobetzeko tresnak

Laneko arriskuen prebentziorako diharduten teknikariei arriskuak eta aplikatu litezkeen prebentzio-neurriak ezagutzeko lagungarriak izango diren tresnak egiteko eta hedatzeko ahaleaginean jarraitzen dugu; esate baterako:


- Zubien eraikuntzako laneko arriskuen prebentziorako gidaliburu teknikoa egiten ari gara, beste erakunde batzuekin eta enpresa pribatuekin lankidetzan, eta 2014ko amaieran amaituko dela aurreikusita da.
- Altueran lanak egiteko Osalanek argitaratutako segurtasun-giden eguneratzea. Dokumentazioa bildu eta berrikusi da, eta aurkibidea eta kapituluaren eskema ezarrita daude. 2014an testua idazteari ekingo zaio.
- Eraikuntza-obretan laneko arriskuen prebentziorako baldintza teknikoaren orria prestatzeko fasean dago.



Arrakastak azpimarratzen diren bezala, oraingoz behintzat burutu ez diren ekintzak ere aipatu behar dira. OSHAS 18001 arauaren arabeko kudeaketa-sistemak ezartzeko diru-laguntzak jaso dituzten enpresetara laneko arriskuen prebentziorako jardura balioestearren bisitak egiteko kanpainaren kasua da. Kanpaina garatzeko metodologia eta tresnak diseinatu dira, baina bisitak ez dira oraindik hasi, ulertu baikeen ekintzaren emaitzak eta laneko segurtasun eta osasunaren hobekuntzan eragingo den inpaktuak ez zutela justifikatzen horrelako jarduerarako egin beharreko baliabide-kontsumo handia.

# 2.10

## ARRISKU ERGONOMIKOEN ETA PSIKOSOZIALEN PREBENTZIOA



### Espezializazioa zabaldu egiten da, osasunari arreta integralagoa eskainiz

2013rako Kudeaketa Planak berrikuntza gisa txertatu zuen arrisku ergonomiko eta psikosozialen jarduera-eremua. Zerbitzuen gizaratean, EA Eren kasuan den bezala, nabarmenak dira, baina hala ere ez dituzte sakon lantzen, ez enpresek, ez prebentzio-erakundeek.

Arrisku psikosozialak lehentasunezkoak izan dira Osalantzat azken urteotan, eta lan handia egin da arlo horretan, interes handiko eta prebentzio-inpaktu handiko emaitzak lortuta. Ilido horri eutsi zaio, jarduera ugari bidez, eta balantzea oso ona izan da oraingoan ere.

Ergonomiaren lan-ildoak, berriz, ez da oraindik hedatu, baina etorkizuneko garapenaren oinarriak jarri dira, eta Osalanek 2014ko Kudeaketa Planaren aldeko apustu sendoa egingo du.

Ekintza hauek gauzatu dira arlo horretan:

- ▶ **Arrisku psikosozialen egoera-mapa osatzea eta argitaratzea**  
Prebentzio-zerbitzuekin, sindikatu-atalekin, Confefaskekin eta laneko ikuskaritzaren batera dihardugu lanean. Horrenbestez, prebentzio-tresnei buruzko eztabaida-talerrak egin dira prebentzio-zerbitzuetako zenbait teknika-erekin eta prebentzio-ordezkariekin, existitzen diren arazoak eta konpontzeko proposamenak direla-eta. Hala-ber, zailtasunak eta hobetzeko proposamenak ere jorratu dira, eta Confefask eta Laneko Ikuskaritza hobetzeko proposamena egin zaio, eta koordinazioaz arduratuko da. Batzorde pilotu bat sor liteke, diziplinan esku hartzen duten aktoreek osatua.
- ▶ **Arrisku psikosozialen alorreko jardunbide egokien jakintza eta trukea bultzatzea**  
Arrisku psikosozialen prebentzioarekin lotura zuzena duten pertsonentzako eta teknikarientzako materialak eta prestakuntza-ekintzak prestatu dira. Ekimen hauek dira, batez ere, azpimarratzekoak:
  - Prebentzio-ordezkarientzako eskuliburuaren berrikuspena.
  - Arrisku psikosozialen gida egitea eta argitaratzea.
  - Arrisku Psikosozialen estatu-mailako lantaldean parte hartzea, LSHINEk deituta.

- Psikosoziologiaren alorreko prebentzioan esku hartzen duten eragileen mahaian parte hartzea, eta Osalanek antolatutako IV. psikosoziologia jardunaldietan bi txosten aurkeztea.

- Zenbait erakundek (Emakunde, Gas Natural, Ertzaintza eta Psikologoaren Elkarte Ofiziala) antolatutako ekitaldietan txostenak aurkeztea.

- Chileko LAP biltzarrean poster moduko bi komunikazio aurkeztea.

- Laneko estresari eta haren prebentzioari buruzko artikulua prentsan argitaratzea.



- Prebentzio-diziplina honi lotutako kontsulta eta salaketei arreta ematea eta haien jarraipena egitea.

► **Arrisku psikosozialen proiektioa Internet bidez sustatzea, Osalanen webgunean berariazko atari bat sortzearen bidez**

Ekimen hau kokatu behar da Osalanen webgunearen berrantolaketan. Izan ere, arlo hori lantzen ari gara, herri-tarrei informazio gehiago eta zerbitzu hobea emateko. Horren haritik, edukiak bildu dira, eta webgunean aurkezteko modua aztertzen ari gara. berariazko atari bat prestatuko dugu, interesdunei informazio espezifikoak jasotzeko aukera emateko.

► **Osalanek antolatutako laneko psikosoziologiari buruzko jardunaldien IV. edizioa**

Azaroaren 21ean eta 22an Bilbon egin ziren Osalanek antolatutako Laneko Psikosoziologiari buruzko IV. Jardunaldiak, laneko estresa eta haren prebentzioa gai monografikotzat hartuta. Jardunaldi horiek antolatzeko, zenbait erakunderekin harremanak izan ditugu: Europako Agentzia, Lan Ikuskaritza, gizarte-eragileak, prebentzio

-zerbitzuak eta beste autonomia-erkidego batzuetarako erakunde publikoak.

Ekitaldian parte-hartzaile ugari bildu ziren, eta goi-mailako esku-hartzeak egin zituzten; horrenbestez, balantzea oso ona dela jo da.

► **Arrisku psikosozialen azterketa Lehen Sektorean**

Berrikuspen bibliografikoa eta metodologiaren egokiena zein izango den argitzeko azterketa eta analisia.

Aplikatu beharreko metodologia eta patroari edo ontzi-jabeari egin beharreko elkarrizketaren ereduak prestatu dira.

San Pedro Itsasgizonen Kofradiarekin harremanetan jarri gara, ontzi-tipo batean proba pilotu bat egiteko, metodologia eta aplikatzeko modua aztertzearen. Proba hori egin gabe dago oraindik, eta horretarako flota portuan behar da.


Kantauriar erlaintzeko autonomia-erkidegoei egingo den prozesua azaltzeko materiala bidaltzea aurreikusita da, aplikatzen has daitezten.

2014an arrisku psikosozialen eremuan lan egiten jarraituko dugu, eta ergonomia aplikatuari buruzko jarduerari il-doari ekingo diogu.



# 2.11

## INFORMAZIO-SISTEMAK



### Jardueren analisia eta emaitzak, etorkizuneko ekintzak diseinatzeko

EAEko laneko segurtasun eta osasunaren egoerari buruzko informazio eguneratua izatea ezinbestekoa da Administrazioaren jardura behar duten arazoak detektatzeko eta premiak identifikatzeko. Halaber, garatutako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egin behar dira.

Horregatik, Osalanen helburuetako bat da informazio-sistema bat eratzea, gure autonomia-erkidegoko langileen osasunari eta lan-baldintzei buruzko informazio interesgarri guztia biltzeko, prozesatzeko, aztertzeko eta transmititzeko. Helburu hori aintzat hartuta, erakundeak 2011n ekin zion aplikazioak aztertzeko, garatzeko eta ezartzeko asmo handiko proiektu bati, kudeaketa errazteko eta informazioa eskura izateko, bai erakundearen jarduerari eta emaitzei buruz, bai EAEko laneko segurtasun eta osasunaren egoerari buruz, hartara politikak eta ekintzak diseinatzea eta ebaluatzea bideratzeko.

Hona hemen arlo horretan egindako aurrerabideen xehetasunak:

#### ► Osalanen informazio-sistema integratuaren ezarpena

2013rako helburua zen 2012an garatutako informazio-sistemaren aplikazioak eta funtzionalitateak produkzioan ezartzeko prozesua amaitzea, eta hasieran identifikatu gabeko zenbait funtzionalitateri ekitea.

Horren aurretik J73 datu-basea araztu eta eguneratu behar izan dugu. Bertan jasota dago EAEko lantokien zentsua, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagokiona; Osalan eginkizun horretan laguntzen ari da, eta lanaren % 90 egin dago dagoeneko.

Aldi berean, zenbait aplikazio ezarri dira, proban, haien akatsak detektatzeko eta zuzentzeko. Halaber, funtzionalitate berriak identifikatu dira, eta haiek abiaratzea edo ez azterketa-fasean dago.

Proiektuak jarraipena izango du 2014an, lanak arintzea eta ahalik eta azkarren emaitzak lortzea helburu hartuta.

#### ► EAEn diharduten prebentzio-zerbitzuei dagozkien osasun-zerbitzuen erregistroa ezartzea

EAEn diharduten prebentzio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuen erregistroa ezartzeko prozesuan aurrera egin



dugu. Halaber, prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduera-aren auditoria edo kanpoko ebaluazioa egiteko pertsona edo erakunde espezializatuak sustatu dira, 2012an hasitako lanari jarraipena emanda.

2013an osatu gabe zeuden funtzionalitateak zuzendu dira, eta hasieran identifikatu gabe zeudenak sartu dira. Garatutako aplikazioak produkzioan ezarri dira, eta datuak kargatzea falta da.

► **Lanari lotutako osasun-arazoaren izaerari eta helmenari buruzko informazioa, eta EAEko biztanleriari dagozkion faktore mugatzaileak**

Epigrafe honetan biltzen dira EAEko langileen osasun-egoera zaindu eta monitorizatu ahal izateko, eta arriskuko lan-baldintzak, denboran zehar gertatutako aldaketa eta joerak, eta osasuna mehatxatzen duten arrisku berrien agerpena aztertzeke. Horretarako gauzatu beharreko ekintza nagusiak honako hauek dira:

- **Prebentzio-zerbitzuen gutxieneko datu-multzoan** oinarritutako laneko osasunari buruzko informazio-sistema ezartzea.

Proiektu hori zenbait urtekoa da, eta irismen handikoa. Osalanek duela zenbait urte ekin zion jarduerari. 2013an haren garapenean aurrera egin da, sistemen planaren esparruan.

• Probetan aurkitutako akatsak zuzentzeko lanak egin dira.

• Datuak trukatu dira proiektuan parte hartu duten zenbait eragilerekin: adierazleak egiten dituen enpresari datuak bidali zaizkio (DWH); prebentzio-zerbitzuek (besterenak, propioak eta mankomunatuak) estaltzen dituzten enpresa eta lantokiak berrikusita eta eguneratuta daude, eta EJEra bidaliko dira, benetan kargatzeko, eta OSARTEN datuak antolatuta.

• Osakidetzarekin antolatzeko lanak egiteko daude.

• Gutxieneko datu-multzoaren erabiltzailearen eskuliburu berri diseinatu da.

• Zerrenden eta taulen balioespenak egiten ari gara, euskaratzeari ekiteko.

• Osasun Sailak lege-araudia garatzea falta da, sistema ezartzeko eta abian jartzeko.

- **EAEko 2012ko lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen** txostenak egin eta jendaurrean aurkeztu dira. Zabalakudea bideratu zen irailaren 20an Bilbon egindako berariazko jardunaldian, eta Osalanen webgunean ere jarrita dago.

- EAEko laneko segurtasun eta osasunaren egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa emango duen **adierazle-multzoa** definitzeko 2012an hasitako lanek jarraitzen dute. Lantaldeak lehenengo fasea burutu du; adierazleak identifikatzeko eta eratzeko prozesua, alegia. Horrenbestez, azken proposamena prestatzen ari da, gero interes-taldeekin eztabaidatzeko eta adosteko.



► **Gaixotasun profesionala susmatzeko sistema hedatzea eta sendotzea**

EAEko osasun- eta prebentzio-zerbitzuek lanean jatorria izan lezaketen gaixotasunen berri emateko sistema ezartzeko proiektua da Osalanen lehenetako bat. Horrenbestez, 2013an zenbait jarduerari ekin dira; besteak beste:

- Arreta espezializatua ematen duten osasun-langileen zuzen **prestakuntza eta informazioa**: Osakidetzako osasun-langileen prestakuntza-planean jasota dago, eta aurreko kapitulu batean aipatu dugu jada, bereziki arreta espezializatuan baliatzeko. Bi ekintza egin dira, eta Osakidetzaren mendeko beste ekintza batzuk aurrekusi dira.

Gurutzetako ospitalean egindako prestakuntza-jarduera, gaixotasun profesionalaren susmoarekin lotura handiena duen zerbitzueruei eta atalburuei zuzendua.

- **Euskarri informatikoa:** Susmo-sistema kudeatzeko aplikazioa abian jartzea (U-86) eta kudeaketa-aplikazioa sistema-planean txertatzea.

- Sistemako taulen azken aldaketa egin eta kargatzea.
- Osabiden aldaketa globala, Osakidetza-ren lehen mailako arretan zein arreta espezializatuan hobekuntzak ezartzeko plataforma informatikoak baliatzea kasuak identifikatzeko.
- Funtzionalitate berriak aztertzeke eta sortzeke zain.
- Azterketa fasean dago Osabiderekiko (Osakidetza) komunikazio telematikorako gailua U86 (Osasun Saila eta Osalan).

· MATEPS bidezko komunikazio telematikorako web-zerbitzua ezartzeko prozesua abian jarri da: MATEPS diseinatzeke eta hedatzeko lehenengo fasea burututa.

- **Araudia:** 2013ko uztailaren 11ko hiruko batzordean Osasun Sailarekin adostutako lantaldea sortzeke dago.

- **Jakinarazitako kasuen** izapidetzea.

Osalanen esku dauden datuen arabera, 2013an jasotako gaixotasun profesionalaren susmoaren jakinarazpen guztiak ondoko taulan jasota daude, lurraldearen arabera eta komunikazioaren jatorriaren arabera banatuta. Zifra horiek lortzen dira lehen patologia hori gaixotasun profesional gisa aitortu gabe eta horrek emango lukeen babesa eskuratu gabe zeuden kasuak aintzat hartuta.



## GAIXOTASUN PROFESIONALAREN SUSMOAREN JAKINARAZPENAK, LURRALDEEN ETA JATORRIAREN ARABERA

NONDIK				
	2013. urtea		2012. urtea	
	Prebentzio-zerbitzuak	Osakidetza, ikuskapen medikoa	Prebentzio-zerbitzuak	Osakidetza, ikuskapen medikoa
Araba	172	15	332	23
Bizkaia	224	39	754	35
Gipuzkoa	321	31	568	17
EAEn, GUZTIRA	<b>717</b>	<b>85</b>	<b>1.654</b>	<b>75</b>

2013an gaixotasun profesional posibleen 802 jakinarazpen jaso dira. Jakinarazpenen horien % 90 prebentzio-zerbitzuetako zerbitzu medikoek eginak dira, eta % 10 Osakidetzako osasun-zerbitzuek eginak. Jasotako jakinarazpenetatik, % 3 ez dira izapidetu, gaixotasun profesionalen artean sartzen ez diren patologiak direlako, edo lanbideko gertakizunengatik babesik gabeko langileak direlako.


2013an jasotako jakinarazpenen kopurua da 2012an jasotako erdia. Beherakada gertatu da prebentzio-zerbitzuetatik datozen jakinarazpenetan; aldiz, Osakidetzako osasun-zerbitzuetatik datozen jakinarazpenen kopurua 2012koen antzekoa da. Jakinarazpenak azken 5 urteotan izandako bilakaera aztertuz gero, ateratzen dugun ondorioa da 2013ko beherakada ez da ohiz kanpoko, eta kopurua aurreko urtee-

tan izandakoen antzekoa da. 2012ko gorakada izan zen entzumena galdutako kasuen jakinarazpenek nabarmen gora egin zutelako, eta 2013ko datuak, berriz, aurreko urteetako kopuruen antzekoak dira; 2010eko eta 2011ko datuen antzekoak, alegia (ikus irudiak).


Lan-ildo hori lehentasunezkoa izango da 2014ko Kudeaketa Planean ere.

Gaixotasun profesionalen eremuan, oro har, eta susmoaren kasuan, bereziki, Gizarte Segurantzaren Antolaketa-rako Zuzendaritzarekin (DOSS) negoziazioei berriro hel- tzea garrantzizkoa da, CEPROSSen datuak lagatzeko.

Sospecha EP CAE



Hipoacusia Servicios Prevención



# 2.12

## PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA



### Osalanen barne-gestioa hobetzea, kalitateko zerbitzua bermatzeko

Jarduera-ildo hori, informazio-sistemen antzera, zeharkakoa eta ezinbestekoa dela jutzen da, Osalanek kalitateko zerbitzu egokia eman diezaien herritarrei, eta esleitu zaizkion funtzioak eraginkortasunez eta efizientziaz bete ditzan.

Osalanek egikaritzen dituen proiektu eta ekintzen pisua beren gain hartzen dute, batez ere, erakundea osatzen duten pertsonak. Haiei informazioa, prestakuntza eta dagokien lana baldintza onenetan egiteko tresnak eman behar zaizkie, eta, aldi berean, haien garapen pertsonala eta profesionala sustatu behar da.

Horren haritik, 2013rako Kudeaketa Planean planteatu ziren Osalanen barne-kudeaketa hobetzeko zenbait jarduera, hainbat eremu barnean hartuta: dokumentuen kudeaketa, kanpoko kontsulterei arreta ematea, pertsonen prestakuntza eta aurrekontuaren kontrola. Gai horretan gauzatutako ekintzak hauek dira:

#### ► **Dokumentuak kudeatzeko eta artxiboa berrantolatzeko sistema**

Osalanen artxiboa berrantolatzeko lanari 2011n ekin zitzaion, erakundeak erabilitako dokumentuak errazago eskuratzeko helburu hartuta, segurtasun- eta konfidentzialtasun-baldintzak errespetatuz, eta lan horri jarraipena eman zaio aurten ere.

Dokusi sistemaren ildoak jarraituz eta Jaurlaritzako artxibo-sistema orokorrarekin lankidetzan, Gipuzkoako lurralde-zentroan ezarritako artxibo-sistema – Osalanen dokumentu-segidien ezaugarritzean oinarritua – Arabako eta Bizkaiko lurralde-zentroetara hedatzen hasi da. Lan hori prozesuan dago, eta aldi berean, zentroetan toki egokiak prestatzen dituzte dokumentazio artxibatuak gordetzeko.

Testuinguru horretan, artxibatutako espediente eta dokumentuak digitalizatzeko aukerak ere aztertzeari ekin zaio. 2014an prozesuak jarraituko du.

#### ► **Osalanen jasotako laneko arriskuen prebentzioari buruzko kontsulterei erantzuteko sistema**

Ekintza hau garatzeko berariazko lantaldea eratu da, honako zeregin hauek dituena: Osalanen kontsulterei arreta emateko zerbitzuaren egoera, dohain eta arazoak diagnostikatzea, eta zerbitzu hori emateko eredu bat proposatzea.

Lehen urratsa izan da Eusko Jaurlaritzak herritarrei arreta emateko jarritako zerbitzuari (Zuzenean) laguntza eskatzea.

Lan handia egin da dokumentazioaren eta azterketaren alorrean, eta horren ondorioz aintzat hartzen dira Osalanen aplikatu daitezkeen bi aukera, irismen desberdinekoak eta mailaz maila aplikatu daitezkeenak, egoki izanez gero.

Lantaldea proposamen bat prestatzen ari da, erakundearen zuzendaritzak azter dezan, eta 2014an zehar eredu definitu eta ezarriko dela aurreikusi da.

Aurrekoaz gainera, Osalanek telefonoz eta aurrez aurre egindako kontsultei erantzun die, ardua hori duten langileen bidez, eta kontsulta telematikoei ere erantzun die. Azken horiei dagokienez, ondorengo taulan zehaztuta ageri dira jasotako eta arreta emandako kontsultak, bai Osalanen postontzian jasotakoak, bai euskadi.net bidez eskura dagoen postontzi orokorraren bidez iritsitakoak.

WEBGUNEAK KONTSULTAK	WEBGUNEAK OSALAN		SAILAREN POSTONTZIA	
	2013	2012	2013	2012
Jasotakoak	121	144	292	425
Erantzundakoak	116	144	286	418
Ebatziak	116	133	286	418
Ebatzi gabeak	0	0	0	0
Birbideratuak	5	11	6	7
Erantzuteko batez besteko denbora	4	5	3 egun eta erdi	Gehienak egun berean; gehienez ere 5 egunetan

Argi eta garbi ikusten da Osalan gehiago ageri dela orain Googlen, gizarte-sareetan sartzearen ondorioz; izan ere, zehar-ondorioz bada ere, biderkatu egin dira bilaketaren emaitzak.

► **Osalangorik langileen prestakuntza eta gaikuntza**

Osalanen 2013rako Kudeaketa Planean jasotako bi ekintzen helburua zen erakundearen langileak dagozkien funtzioak betetzeko gaitzea, eta garapen profesionalerako prestatzeko aukera ematea.

Horretarako lehen urratsa da **prestatutza-premiak** identifikatzea, eta aurrean ekin zaio eginkizun horri, **premiak asetzeko prestatutza-plana** diseinatu aurretik.

Emaitza gisa, Osalan osatzen duten pertsonen prestatutza-premiak zehazteko metodologia diseinatu da. Metodologia horren oinarria da bakoitzaren gaitasunak aldatzea bete behar dituen funtzio eta zereginekin, zer proiektuetan parte hartzen duten kontuan hartuta. Eredu horren garapena eta aplikazio posiblea aztertzen ari da Osalanen zuzendaritza; hortaz, proiektuak bere bidean aurrera egingo du 2014an.

Dena dela, Osalanen diharduten langileek 2013an jaso dute beharrezkotzat eta onargarritzat jotako prestatutza, aplikagarritasunari eta gehiegizko gastuak saihesteari lotutako irizpideak aintzat hartuta.



► **Laneko arriskuen prebentziorako interesgarriak diren batzorde, lantalde, foro eta abarretan parte hartzea**

Osalanen diharduten profesionalak laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako hainbat alderdi jorratzeko eraberritako foro eta lantaldetan parte hartu dute. Haien artean azpimarratzekoak dira honako hauek:

## BATZORDEAK\_LANTALDEAK\_FOROAK

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde nazional-  
leko arazo muskuloeskeletikoen lantaldea

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde naziona-  
la eratzeke taldea

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde naziona-  
leko nekazaritzako lantaldea

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde naziona-  
leko amiantoari buruzko lantaldea

LSHINen istripuak ikertzeke taldea

LSHINen laneko istripu-kopuruak aztertzeke taldea

LSHINen makinek eragindako lan-egoera arriskutsuak  
aztertzeke taldea

AENORren AEN/CTN 15

AENORren AEN/CTN 81

AENORren AEN/CTN 81/ SC 3

AENORren AEN/CTN 81/SC 3-GT B12

AENORren AEN/CTN 81/SC 3-GT A2

AENORren amiantoari buruzko taldea

AENORren azpibatzerdea

Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioaren eta au-  
tonomia-erkidegoen arteko amiantoari buruzko Ba-  
tzorde Tekniko Mistoaren lantaldea

Laneko osasunari buruzko txostena - Osasun Sistema  
Nazionaleko lurralde arteko kontseiluaren osasun pu-  
blikoko batzordearen lantaldea

Zentroen arteko segurtasun eta osasunerako batzordea

AEN/CTN 180 Obretako aldi baterako lanetarako ekipamendua

Sailen arteko REACH lantaldea

Gaixotasun profesionalen susmoa jakinarazteke batzordea

Herrilanen azpiegitura handien Gipuzkoako eta Bizkai-  
ko batzordea

Euskadiko DEA sailen arteko batzordea

Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua

Basequim

Safera

GSINen amiantoari buruzko hitzarmenaren lantaldea

GSINen ezintasunak balioesteko lantaldea (Bizkaia eta  
Gipuzkoa)

Lanerako ezintasun iragankorrari buruzko foroa

Laneko medikuntza eta erizaintzako prestakuntzarako  
batzorde editoriala, UNIVADIS plataforman integratua

Tramitaguneko lankidetzeta-taldea (aholkularitza juridi-  
koen arduradunak)

## ► Aurrekontuaren ebaluazioa eta kontrola


Gardentasuna bermatzeko eta gastuek gora ez egite-  
ko konpromisoak betetzearren, hiru hilean behin kon-  
trolatu dira aurrekontuak, eta egoerari buruzko txosten  
labur-zehatz bat egin da. Txosten hori aztertu da zuzen-  
daritzak eta lurralde-zentroetako laneko arriskuen pre-  
bentziorako arduradunek berariaz egindako bileretan.

2014rako aurrekontuari dagokionez, zirriborroa egin eta  
Saileko Zerbitzuen Zuzendaritzara bidali da. Diru-sarre-  
rak, guztira, Sailaren gastu arruntetarako transferentzia-  
ko geldikinak eta beste diru-sarrera txiki batzuk barne  
hartuta (esate baterako, maileguak itzultzea eta EBtik ja-  
sotako transferentziak), 14 milioi € inguru dira, aurreko  
ekitaldian baino % 5,98 gutxiago.

Aurrekontuaren atal nagusia langileek eragindako gastua  
dela kontuan hartuta, eta funtzionamendu-gastuetarako  
zati handi bat badagoela kontuan hartuta, murrizketak  
diru-laguntzen atalean egin dira batez ere.

# 2.13

## OSALANEN ERAKUNDE-JARDUERA



### Sektore guztietako maila guztietan arreta ematea

Lan-arlo honetan biltzen dira Osalanek garatzen dituen jarduerak, erakundea sortzeko legean eta egitura eta funtzionamendua ezartzen duen erregelamenduan esleitutako funtzioak betetzeko. Gauzatutako ekintzak eta lortutako emaitzak hauek dira:

- Lan eta Osasun Agintaritzen eskaerei erantzutea, segurtasun industrialaren eta judizialaren arloan, bai eta Lan Ikuskaritzak organismoek, enpresek, prebentzio-erakundeek eta langileek eskatutako laguntza teknikoa ematea ere

ERREKERIMENDUAK	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Jasotako errekerimenduak	Txostenak	Jasotako errekerimenduak	Txostenak	Jasotako errekerimenduak	Txostenak
Lehen sektorea	-	-	-	-	-	-
Industria	15	12	12	7	7	5
Eraikuntza	-	-	-	-	3	3
Zerbitzuak	12	9	5	5	5	5
Lan-osasuna	14	14	-	-	15	9
<b>GUZTIRA</b>	<b>41</b>	<b>35</b>	<b>17</b>	<b>12</b>	<b>30</b>	<b>22</b>

► Lan-istripu larriak, oso larriak, heriotza eragiten dutenak eta anizkoitzak ikertzea, eta dagozkien txostenak egitea, Lan Agintaritzara eta Agintaritzaren Judizialera helarazteko, eta interesdunei bidaltzeko

EAEn gertatutako istripuetatik (ikus 1. eranskina), honako hauek ikertu dira:

ISTRIPUAK	Industria	Eraikuntza	Lehen sektorea	Zerbitzuak	GUZTIRA
Heriotza eragindakoak	9	6	6	9	<b>30</b>
Larriak / Oso larriak	35	18	3	27	<b>83</b>
Arinak	124	21	18	52	<b>215</b>
Anizkoitzak	-	-	-	-	-

► Irekitzea jakinarazten duten industriako, zerbitzuetako eta lehen sektoreko enpresen lantokietan laneko arriskuen prebentzioa ikuskatzea

LANTOKIAK IREKITZEA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
LEHEN SEKTOREA	6	-	-	<b>6</b>
INDUSTRIA	21	48	25	<b>94</b>
ZERBITZUAK	48	267	1	<b>316</b>
GUZTIRA	<b>75</b>	<b>315</b>	<b>26</b>	<b>416</b>

► Lanarekin zerikusia duten gaixotasunak ikertzea eta dagozkien txostenak egitea

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Egindako ikerketak	Amiantoak	15	14	17	<b>46</b>
	Beste faktore batzuk	9	21	2	<b>32</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>24</b>	<b>35</b>	<b>19</b>	<b>78</b>
<b>Egindako txostenak</b>		<b>18</b>	<b>38</b>	<b>17</b>	<b>73</b>

► Osalaren Higiene Laborategiko jarduerak

<b>Egindako txostenak</b>	<b>197</b>
- Ingurumenari dagozkionak	187
- Biologikoak	10
<b>Erabakien kopurua</b>	<b>2179</b>
- Ingurumenari dagozkionak	2.149
- Biologikoak	30
<b>Fakturazioa</b>	<b>21.519€</b>

► EAEn identifikatutako legionella kasuen jatorria lana ote zen ikertzea, Osasun Sailak eskatuta

<b>Ikertutako kasuen kopurua</b>	<b>7</b>
<b>Egindako txostenak:</b>	<b>7</b>
- Aldekoak	2
- Ezezoak	5
<b>Eragindako langileen kopurua</b>	<b>7</b>



► **Prebentzio-zerbitzuen baimen sanitarioa eta kontrola**

Baimen sanitarioa edo prebentzio-zerbitzuak etetea	Jasotako baimen-eskaerak	<b>291</b>
	Jasotako uzte-eskaerak	<b>55</b>
	Egindako txostenak	<b>252</b>
Ikuskapena eta kontrola	Jasotako salaketak	<b>7</b>
	Ofiziozko jarduerak	<b>544</b>
	Egindako txostenak	<b>44</b>
Zigor-espeditenteak		<b>12 irekiak</b>

► **Argitalpenak prestatzea eta argitaratzea**

OSALANEK ARGITARATUTAKO ZEIN PARTE HARTUTAKO ARGITALPENAK 2012RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN		
ARGITALPENA	Argitaratzailea	Data
Laneko ekipoak mantentzea eta konpontzea	OSALAN	2013
Mantenimiento y reparación de los equipos de trabajo	OSALAN	2013
Osalanen 2013rako Kudeaketa Plana	OSALAN	2013
Osalanen 2012ko jarduera-memoria	OSALAN	2013
Makineria berria erosteko aholkuak	OSALAN	2013
Consejos para la compra de maquinaria nueva	OSALAN	2013
Igerileku estalietan kloraminek eragindako kutsadura saihesteko soluzio teknikoak	OSALAN	2013
EAEko lan-istripuei buruzko 2012ko txostena	OSALAN	2013
EAEko gaixotasun profesionali buruzko 2012ko txostena	OSALAN	2013
Gida-liburua, arrisku psikosozialen eta antolamenduko en hastapenak / Guía de introducción a los riesgos psicosociales organizativos	OSALAN	2013
Prebentzio-delegatua eta arriskuen prebentzioari buruzko beste gai interesgarri batzuk / El Delegado de prevención y otras cuestiones de prevención de riesgos laborales que me interesan.	OSALAN	2013
Laneko arriskuen prebentzioa, prebentzioko ordezkariarentzako oinarrizko ikastaroa	OSALAN	2013
Curso básico en prevención de riesgos laborales para Delegados y Delegadas de prevención	OSALAN	2013
Guía de VST en el sector pesquero (III parte)	OSALAN	2013

# BALIABIDEAK

# 3

2013rako Kudeaketa Planaren garapenean erabili dira ekitaldiaren hasieran planifikatutako baliabideak, ondoren zehaztuta ageri direnak.

## 3.1.

2013ko ekitaldian jarduera gauzatzeko Osalanek izan dituen gastu eta diru-sarreraren aurrekontua honela banatu zen:

### BALIABIDE EKONOMIKOAK

#### GASTUAK

I. kapitulua	Langile-gastuak	9.867.573
II. kapitulua	Funtzionamendu-gastuak	4.499.793
III. kapitulua	Finantza-gastuak	225
IV. kapitulua	Transf. eta diru-lag. Gastu arruntak	1.766.796
VI. kapitulua	Ondasun-inbertsioak	500.000
VII. kapitulua	Transf. eta diru-lag. Kapital-eragiketak	435.000
VIII. kapitulua	Finantza-aktiboen gehikuntza	30.000
	<b>GUZTIRA</b>	<b>17.099.387</b>

#### DIRU-SARRERAK

III. kapitulua	Tasak, prezio publikoak eta beste batzuk	35.500
IV. kapitulua	Transferentzia arruntak	13.422.593
V. kapitulua	Ondare-sarrerak	1.500
VIII. kapitulua	Finantza-aktiboen gutxitzea	3.639.794
	<b>GUZTIRA</b>	<b>17.099.387</b>

# 3.2


## GIZA-BALIABIDEAK

### Prebentzioan eta lanbide-garapenean espezializatzea

Osalango langile guztiek parte hartu dute 2013rako Kudeaketa Planaren garapenean, betiere norik bere lanpostuaren funtzio-eremuaren barruan.

Erakundeak 181 lanpostu ditu gaur egun, Zerbitzu Zentraletan eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-zentroetan banatuta. 23 langilek osasuna zaintzeko arloko jardueretan dihardute, 79k arlo teknikoa egituratzen duten sektore-unitateetan, eta beste 79k laguntza-funtzioetan dihardute administrazio-arloan, arlo juridikoan, kudeaketan eta giza-baliabideetan.

Osalanen egitura organigrama honen arabera da:



2013rako Kudeaketa Plana exekutatzeko lanak antolatuta dira erakunde-diseinu horren arabera egokituta. Ekin-tzak gauzatu dira dagozkien arduradunen zuzendari-tzapean, langile guztiek aktiboki parte hartuta, eta gaien arabera dagozkien zuzendariordeek ikuskatuta.

Pertsonak ekintzetara eta lantaldeetara esleitzeko garaian, pertsonen nahiak eta erakundearen interesak bateratzeko ahalegina egin da. Horren haritik, irizpideak hauek hartu izan dira: langileak prebentzio-diziplinetan espezializatzea bilatzea, lan-karga orekatzea eta aukera-berdintasuna bermatzea, bai eta langileen garapen per-sonal eta profesionala bultzatzea ere.

# 2013RAKO KUDEAKETA PLANAREN GARAPENARI BURUZKO BALIOESPENA



Osalanen 2013rako Kudeaketa Planaren garapenaren balioespen zehatza egiteko, bi alderdi ebaluatu behar ditugu. Alde batetik, kontuan hartu behar da aurreikusitako jardueren exekuzio-maila, bai eta planifikatutako baldintzak burutu diren eta diseinuaren araberakoak izan diren ere, egikaritutako zereginei, egutegiari eta kontsumitutako baliabideei dagokienez. Bestalde, aintzat hartzekoak dira emaitzak, ezarritako helburuak zenbateraino bete diren, eta langileen segurtasun eta osasunean eragindako inpaktua, erakunde honen azken xedea den aldetik.

Lehenengo gaiari dagokionez, memoria honen aurreko kapituluetakoko jardueren deskribapen zehatzetik atera dezakegun ondorioa da ekintzen ekintzen egikaritzean desberdintasunak daudela, eta horrenbestez, bai eta lan-eremuen garapenean ere, baina balantzea, oro har, positiboa dela. Esan dezakegu, atseginez, aurreikusitako ekimen guztiei heldu diegula, gehiago edo gutxiago, eta ekimen horiek aurrera ateratzeko ahalegin guztiak egin ditugula.

Zenbait kasutan programatutako helburuak ez badira lortu, zereginak aldatu behar izan badira, edo egutegiak errespetatu ez badira, desbideratze horien zioak aztertu dira beti, eta arrazoizko motiboak aurkitu ditugu beti, askotan Osalani zuzenean egotzekoak ez direnak. Erakundearen jarduerari dagokion laneko arriskuen prebentziorako eremua konplexua da, hainbat eragile publiko eta pribatuk dihardute, bakoitzak bere zeregin, ardura eta interesak dituztela, eta askotan zaila izaten da horiek guztiak bateratzea. Horregatik, batzuetan, paperean arrakastatsuak diren ekintzak ezin dira gauzatu diseinatutako baldintzen araberera.

Osalanek tinko eutsi dio laneko segurtasun eta osasunaren alorreko eragile nagusiek erakundearen jardueretan parte hartzeko helburuari, eta haien inplikazioa eta ekarpenak bultzatu ditu, lantaldetan eta batzordetan oinarritutako dinamiken bidez. Lanean jarduteko modu horrek dakarren onura da garatutako ekimenei balioa eransten diela eta aberastu egiten dituela, baina arazoak sortzen ditu agendak bateratzeko eta egutegiak betetzeko garaian, eta horren ondorioz, ekintzek motelago egiten dute aurrera. Hala gertatzen da kanpoko eragileek esku hartuta egiten diren Osalanen proiektu askotan.

Erakundearen kudeaketaren barne-esparruari erreparatuta, aurtengo bi une gogoangarri nabarmendu behar ditugu, gure lanaren garapenean eragin baitute. Bietan funtsezkoena Zuzendaritza Nagusian 2013ko urtarrilean egindako aldaketa da, legealdi berria dela-eta. Baina ez da aldaketa bakarra izan, Osalango erantzukizuneko postuetan zeuden zenbait pertsonen erretiroa hartu baitute. Horrenbestez, plaza horiek betetzeko izapideak egin dira, eta Administrazioan prozesu hori nahi baino geldoagoa da.

Aurrekoari erantsi behar diogu erakundearen lana antolatzeko moduan aldaketa bet egin dela, antolaketaren azterketa egin ostean abian jarri dena, inkesta baten bidez langileek adierazitako iritziak oinarri hartuta. Arduradun berriek beren gain hartu dituzte lehen kudeaketan laguntzeko lantaldeei esleitutako ekintzen erantzukizuna, eta zeregin horretan jarduteko lantaldeak eratu dira. Horrenbestez, jarduera eraberritu da.

Zailtasun horiek ez dira berriak Osalanentzat, ohikoak baitira inguru aldakor eta konplexuan diharduten enpresa eta erakundeentzat. Hortaz, kudeatu ditugu, eta arrakastaz gainditu ditugulakoan gaude.

Epealdi honetan lorpen ugari eta pozgarriak eskuratu ditugu, aurreko kapituluetan jasotako jarduera eta emaitzen laburpenean ikusten denez. Haien artean bakarren bat azpimarratzekotan, bereziki pozten gaitu Osalanek interneten lortu duen proiektio handiak, bai erakundearen webgunearen bidez, bai gizarte-sareetako jardueraren bidez. Erakundearen helburu bat zen, gure zuzendaritzak adierazi zuena, eta lortu dugu.

Halaber, azpimarratzekoak dira honako jarduera hauek: gaixotasun profesionalen inguruko jarduera (batez ere, amiantoaren eraginpean egoteari lotutako kasuen tratamendua bizkortzea); gure profesionalen presentzia sektore guztietako lantokietan; gure jarduera teknikoaren kalitate handia, egindako txostenetan agerikoa dena; argitalpenak, txostenak eta dibulgazio-materiala; eta, finean, garatutako jarduera gehienak, langileen segurtasun eta osasunean zalantzarik gabeko inpaktuan eragin dutelakoan baikaude.

# 1. ERANSKINA

## EAE-KO ISTRIPUEI BURUZKO DATUAK

LAN-ISTRIPUAK		BALIO ABSOLUTUAK		URTETIK URTERAKO ALDAKETA	
		2013	2012	Absolutua	%-tan
ERREFERENTZIAZKO ALDIAN BAJA ERAGIN DUTEN LAN-ISTRIPUAK		29.447	30.438	-991	-3,3
Istripu berriak		27.960	28.922	-962	-3,3
Berriz gaitotzeak		1487	1.516	-29	-1,9
BAJA ERAGIN DUTEN LAN-ISTRIPU BERRIAK					
Lanaldian					
	Arinak	24.445	25.406	-961	-3,8
	Larriak	138	160	-22	-13,8
	Heriotza eragindakoak	28	31	-3	-9,7
	Istripuak, guztira	24.611	25.597	-968	-3,9
In itinere					
	Arinak	3.324	3.290	34	1,0
	Larriak	19	27	-8	-29,6
	Heriotza eragindakoak	6	8	-2	-25
	Istripuak, guztira	3.349	3.325	24	0,7
LANALDIAN GERTATU DIREN ETA BAJA ERAGIN DUTEN LAN-ISTRIPU BERRIAK					
Lurrealdeka					
	Araba	4.514	4.705	-191	-4,1
	Bizkaia	12.344	12.966	-622	-4,8
	Gipuzkoa	7.753	7.926	-173	-2,2
	EAE	26.611	25.597	-986	-3,9
Heriotza eragindako istripuak					
	Araba	4	6	-2	-33,3
	Bizkaia	15	13	2	15,4
	Gipuzkoa	9	12	-3	-25,0
	EAE	28	31	-3	-9,7
ERAGIN-TASA, SEKTOREKA					
Istripuak, guztira		35.768	35.961	0	-0,5
	Lehen sektorea	65.022	60.055	4	6,5
	Industria	56.261	58.006	-2	-3,0
	Eraikuntza	73.425	76.534	-3	-4,1
	Zerbitzuak	26.184	25.042	1	4,6
BAJARIK ERAGIN EZ DUTEN LAN-ISTRIPUAK		45.159	46.883	-1.724	-3,7

GAIXOTASUN PROFESIONALAK	BALIO ABSOLUTUAK		URTEK URTERAKO ALDAKETA	
	2013	2012	Absolutua	%-tan
Baja eragin dutenak	777	852	-75	-8,8
Bajarik eragin ez dutenak	2002	1.854	148	8,0
Guztira	2.779	2.706	73	2,7

# 2. ERANSKINA

## OSALANEK 2013RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

EKITALDIA	DATA	TOKIA	HELBURUA
Lan-gosaria metalaren sektoreko adituekin, «Formación de Seguridad Laboral» aldizkariak lagunduta	Maiatzak 19	Osalan Bizkaia	Metalaren sektoreko langileen arrisku nagusiak tratatzea: silikosia, zarata, arazo muskuloesketiko eta psikosozialak.
Laneko segurtasun eta osasunari buruzko III. Uda Ikastaroa, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Osalane lankidetzan antolatua.	Uztailak 18 eta 19	Donostia	Laneko arriskuen prebentzioan gizartearen sentsibilizazioa eta kontzientziakioa areagotzen jarraitzea, gaiari buruzko ezau-pideen eta esperientzien berri emanez.
EAEko istripu-tasei eta gaixotasun profesionalei buruzko urteko txostenen aurkezpena. 2012. urtea	Irailak 20	Bilbo	EAEko istripu-tasei eta gaixotasun profesionalei buruzko 2012ko datuen aurkezpena eta analisisa.
FITMAQ 2013. Industriaren eta teknologiaren goi-bilera 2013.	Urriaren 1etik 4ra bitartean	Barakaldo	Osalanen stand-ean aurkeztuko da makina berriak erosteko aholkuen dokumentua.
ERANET-SAFERA europar proiektuaren aurkezpena, Osalanen ikerkuntzarako diru-laguntzen esparruan Osalan.	Urriak 4	Zamudio	Industria-segurtasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko ikerkuntzarako diru-laguntzak, EEn ondorioak dituztenak.
Enpresan bide-segurtasuna kudeatzeko jardunaldia. Asociación para el Progreso de la Dirección elkarteak antolatuta, MAZ Sociedad de Prevención erakundearekin lankidetzan.	Urriak 16	Bilbo	Enpresan bide-segurtasuna kudeatzeko zenbait ekimenen azalpena. Egungo egoeraren diagnostikoa eta enpresa-esperientzia praktikoa.
Jardunaldi teknikoa: EAEko sektore-kanpainak. Laneko arriskuen prebentziorako elkarlanean.	Urriak 29	Bilbo	Osalanek azken urteotan egindako sektore-kanpainen emaitzak eta ondorioak hedatzea, lanpostuen segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzeko prebentzio-neurriak eta jardunbide egokiak aplikatzeko.
Jardunaldi teknikoa: Osasuna sustatzearen bidez enpresa osasungarrira (Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta AENOREkin lankidetzan)	Azaroak 8	Bilbo	Osasunaren sustapena enpresetan: enpresa osasungarriari buruzko AENOREn ISO arauaren aurkezpena, eta enpresa batzuetako esperientziak.



EKITALDIA	DATA	TOKIA	HELBURUA
Laneko psikosozologiari buruzko IV. jardunaldiak, Osalanez antolatuak	Azaroak 21 eta 22	Bilbo	<p>Faktore psikosozialei lotutako arriskuen zein langileen osasunean eragin ditzaketen ondorio kaltegarrien prebentzioa eta jakintza sustatzea.</p> <p>Jardunaldien gai monografikoa: laneko estresa Mitoak eta ebidentziak.</p>
Prebentzio-zerbitzuetako osasun-arloko langileentzako prestakuntza-planari buruzko jardunaldia: laneko historia klinikoaren eredu berria (Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Medikuz Zientzien Akademiarekin lankidetzan).	Otsailak 19	Bilbo	<p>Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileak helburu dituen ekitaldia, haien prestakuntza-plana aurkezteko, erakunde horietan egunero diharduten sektoreko profesionalen parte-hartzea sustatzea helburu hartuta, baterako plan egonkor eta etengabea prestatze aldera.</p> <p>Proiektu horretan lehenengo urratsa egin da: Horrenbestez, jardunaldian definitu dira jorratuko diren gaiak, garatuko diren ikasgai eta ikastaroak, eta prestakuntza-plan «bizi» bat prestatzeko egin daitezkeen doitzeko eta aurrerabideak.</p> <p>Halaber, jardunaldian aurkeztu da laneko historia klinikoaren eredu berria, prebentzio-zerbitzuen elkartearekin batera garatua.</p>
2013an Osalanez finantzaturako ikerketa-proiektuak aurkezteko jardunaldia.	Otsailak 28	Bilbo	Zenbait erakundek (SGS Tecnos, Lantegi Batuak, Tecnalia, Onkologiko Fundazioa, Ingema eta Ermuko Udala) egindako ikerketa-proiektuen emaitzen aurkezpena.
Laneko arriskuen prebentzioa, prebentzioko ordezkarietarako eskuliburuaren aurkezteko jardunaldia	Martxoak 13	Bilbo	Eskuliburuaren aurkezpena: aurrekariak eta egungo egoera; eskuliburuari buruzko alderdi teknikoak.

# 3. ERANSKINA

## OSALANEK ANTOLATU EZ DITUEN EKITALDIETAN 2013RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN PARTE HARTZEA

EKITALDIA	ANTOLATZAILEA	EGUNA	TOKIA	OSALANEN PARTE-HARTZEA
ORP'2013 – Laneko arriskuaren prebentzioari buruzko nazioarteko 11. biltzarra	ORP	Apirilak 3-5	Santiago (Txile)	Osalanen zuzendari nagusiaren hitzaldia: Osalanen estrategia, XXI. mendeko enpresa osasungarria helburu
Laneko erizaintza eguneratzeko VI. jardunaldia	Bizkaiko Erizaintza Elkargoko laneko erizaintzari buruzko atala	Apirilak 3	Bilbo	Osalango 2 lan-erizainen parte-hartzea: gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazteari buruzko txostena.
Mahai-ingurua: «Krisi ekonomikoa, lan-merkatua eta laneko segurtasun eta osasuna XXI. mendean»	UPV/EHUko Lan Harremanen Eskolak ematen duen laneko segurtasun eta osasunari buruzko masterra	Apirilak 10	Bilbo	Osalanen zuzendari nagusiaren hitzaldia: Iraganaren analisia eta orainaldiaren kudeaketa, laneko arriskuen prebentzioak Euskadin duen etorkizunari begira
Itsaspreben ekimenaren esparruan garatutako aurrerabide teknikoari buruzko jardunaldia, SINAVAL 2013 azokan.	SINAVAL 2013	Apirilak 18	Bec Barakaldo	OSALANen zuzendari nagusiaren parte-hartzea jardunaldian ongi-etorria emateko eta aurkezpena egiteko Jardunaldiei amaiera ematea zuzendariorde teknikoaren eta plangintzako zuzendariordearen txostenaren bidez: Errokkak eta etorkizunerako ikuspegia arrantzaren segurtasunean eta osasunean.
Jardunaldia: Bikaintasuna osasun integralaren kudeaketan	Asepeyo prebentzio-sozietatea	Apirilak 24	Euskalduna	OSALANen zuzendari nagusiak jardunaldia inauguratzen du. Osasun publikoaren esparruan laneko osasunak duen garrantziari buruzko txostena: Zaintza epidemiologikoa (hizlaria: Felix Urbaneja Arrúe)
Jardunbide egokien Europako sariak	Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentzia	Apirilak 30	Dublin	OSALANen zuzendari nagusiaren parte-hartzea sari-banaketan.
Eraikuntzaren sektoreko laneko bide-segurtasunari buruzko jardunaldia	Eraikuntzako Lan Fundazioa	Maiatzak 7	Bilbo	OSALANen zuzendari nagusia jardunaldiaren aurkezleetako bat da. EAEko joan-etorrietako lan-istripuen bilakaerari buruzko ponentzia (hizlaria: Pablo Uriarte).
Ingurumen-osasunari buruzko XII. biltzarra	SESA, Ingurumen Osasunaren Espainiako Elkarte	Ekainak 12-14	Granada Espainiako Elkarte	Komunikazioa: «Legionella pneumophila , 1. serotipea, talasoterapia-zentro batean» (hizlariak: Maite Robertson eta Teresa Saez de Ocariz).
Laneko medikuntzari buruzko Euskadiko eta Akitaniako biltzarra	Laneko Medikuntza eta Segurtasunerako Euskadiko Elkarte.	Ekainak 14	Gasteiz	OSALANen zuzendari nagusia jardunaldiaren aurkezleetako bat da. J. C. Cotoren parte-hartzea mahainguruan: Laneko medikuntzaren defentsan, elkarte zientifikoaren alegazioak laneko arriskuen prebentziorako LOZ jardueren oinarritzko gida orokorrari. Laneko medikuntzaren dekalogoaren aurkezpena

UPV-EHUko Uda Ikastaroetako topaketa: Laneko jazarpenaren alorreko arazoak eta antzeko egoerak kudeatzeko protokolo eta prozedurak	Jazarpenari buruzko Euskal Behatokia UPV-EHU	Ekainak 27-28	Donostia	Mahai-ingurua: «Erakundeen bitartekotza laneko jazarpeneko arazoetan» (Iñaki Olaizola doktorea parte-hartzaile).
Laneko estresa: murrizteko eta kontrolatzeko jarraibideak eta trebetasunak	Mondragon Unibertsitateko Laneko Arriskuen Prebentzioko Goi Eskola Teknikoa	Uztailak 4	Iturripe campusa, Mondragon Unibersitatea	Inaugurazio-ekitaldia (Pablo Uriarte Astarloa, Osalango plangintza zuzendariordea parte-hartzaile).
Laneko arriskuen prebentzioari buruzko jardunaldiak Kantabriako Unibertsitatean	Kantabriako Unibertsitatea eta Comisiones Obreras	Irailak 25-27	Kantabriako Unibertsitatea	Pablo Uriarteren hitzaldia: Osalanen Kudeaketa Plana. «Argi-ilunak»
Trends in Nanotechnology International Conference. TNT 2013	IASST	Irailak 9-13	Sevilla	Nanoteknologiai buruzko txostena (txostengilea: M <sup>a</sup> Nieves de la Peña)
Laneko Medikuntza eta Erizaintzaren IX. Biltzarra	Laneko Medikuntzako Espezialisten Espainiako Elkarte	Irailak 18-20	Madril	Mahai-inguruan edo adituen panelean parte hartzea (moderatzailea: Pablo Uriarte)
International Symposium on culture of prevention	FIO	Irailak 25-27	Helsinki Finlandia	Parte hartzea eta industriako segurtasun eta osasunari buruzko txostena aurkeztea (txostengilea: M <sup>a</sup> Nieves de la Peña)
Jardunaldi: Berdintasuna, osasun psikosoziala eta bikaintasuna	Emakunde	Azaroak 15	Bilbo	Zuzendari nagusiaren parte-hartzea inaugurazio-ekitaldian. Ponentzia: Arrisku psikosozialen prebentzioa EAEn. Gaur egungo egoera (hizlaria: Maite Gómez)
Amiantoaren arriskuak aztertzekeo jardunaldia	SEA, Mutualiako prebentzio-zerbitzuekin lankidetzan	Azaroak 4	Gasteiz	Hitzaldia: Osalanen jarduera amiantoari buruzko gaietan (hizlaria: Pablo Uriarte)
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren lantoki osasungarriari buruzko kanpaina aurkezteko jardunaldiak	Europako Agentzia	Azaroak 11-12	Bilbo	Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren eta zuzendari nagusiaren parte-hartzea hasierako aurkezpenean eta ondorengo prentsaurrekoan.
Jardunaldi tekniko. Makinen zaratari buruzko europar azterlana (NOMAD). Egungo egoera eta estatu-mailan abian jarri beharreko ekintzak.	LSHIN	Azaroak 28	Bilbo	Pablo Uriarte parte-hartzaile.
Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko jardunaldia	ADEGI	Azaroak 29	Donostia	Álvaro Abancens parte-hartzaile, istripu-tasari buruz mintzatuta
Ertzaintzan laneko arriskuen prebentzeari buruzko jardunaldia	Segurtasun Saila Eusko Jaurlaritz		Erandio	Teresa Salazar (aholkulari juridikoa) hizlari
UGT-Euskadiren Laneko Osasun Jardunaldia: enpresen prebentzio-antolaketa	UGT-Euskadi	Abenduak 11	Bilbo	Zuzendari nagusiaren parte-hartzea inaugurazio-ekitaldian. Iñaki Olaizolaren txostena.

# 4. ERANSKINA

## OSALANEN ZUZENDARI NAGUSIAK 2013AN PARTE HARTUTAKO EKITALDIAK

2013ko martxoaren 13a	FORUM EUROPA gosaria. Euskadi tribuna Juan M <sup>a</sup> Aburto	Parte-hartzailea	Bilbo
2013ko martxoaren 3tik 5era	Laneko Arriskuen prebentziorako XI. nazioarteko biltzarra (ORP) Laneko arriskuak (ORP)	Txostengilea	Txile
2013ko apirilaren 10ean	Mahai-ingurua: «Krisi ekonomikoa, lan-merkatua eta laneko segurtasuna» eta osasuna XXI. mendean	Txostengilea	Bilbo
2013ko apirilaren 18a	ITSASPREBEN jardunaldia	Inaugurazioa	BEC
2013ko apirilaren 22a	Segurtasunaren I. astea SMURFIT KAPPA segurtasuna	Txostengilea	Durango
2013ko apirilaren 24a	Laneko segurtasunaren eta osasunaren munduko eguna ASEPEYO	Inaugurazioa	Bilbo
2013ko martxoaren 29a	FORUM EUROPA gosaria. Euskadi tribuna Iñigo Urkullu	Parte-hartzailea	Bilbo
2013ko maiatzaren 7a	Euskadiko eraikuntzako laneko fundazioaren jardunaldia Laneko segurtasuna eraikuntzaren sektorean	Inaugurazioa	Bilbo
2013ko maiatzaren 16an	Metal-alorreko enpresen euskal federazioaren jardunaldia «Lan-istripuak eta gaixotasun arruntagatik lanera ez joatearen tasa gutxitzea» joateak murriztea	Inaugurazioa	Bilbo
2013ko ekainaren 14a	Laneko medikuntzari buruzko Euskadiko eta Akitaniako biltzarra	Inaugurazioa	Gasteiz
2013ko ekainaren 19a	Laneko gosaria: «Laneko arriskuen prebentzioa metal-alorreko enpresetako eta galdategietako langileen artean»	Asistente	Osalan
2013ko ekainaren 20a	OSALANen eta Bilboko Medikuz Zientzien Akademiaren artean lankidetzaren hitzarmena sinatzea.	Sinatzailea	Bilbo

2013ko uztailaren 18tik 19ra	Laneko segurtasun eta osasunari buruzko III. Uda Ikastaroa	Inaugurazioa	Donostia
2013ko irailaren 20a	Aurkezpena: «Euskadiko lan-istripuei eta gaixotasun profesionalei buruzko OSALANen txostena, 2012. urtea	Amaiera	Bilbo
2013ko irailaren 25etik 27ra	International symposium on culture of prevention	Parte-hartzailea	Helsinki
2013ko urriaren 4a	SAFERAren lehen deialdiaren aurkezpen-saioa TECNALIA	Aurkezpena	Derio
2013ko urriaren 16a	Bide-segurtasunaren kudeaketa enpresan APD	Aurkezpena	Bilbo
2013ko urriaren 17a	XVI. Topaketa: Enpresa + San Prudentzio Fundazioa	Parte-hartzailea	Gasteiz
2013ko urriaren 28a	Laneko arriskuen prebentzioari buruzko jardunaldia IBERDROLA	Amaiera	Santurtzi
2013ko urriaren 29a	Jardunaldi teknikoa: EAEko sektore-kanpainak».	Inaugurazioa	Bilbo
2013ko azaroaren 8a	Osasuna sustatzearen bidez enpresa osasungarrira	Inaugurazioa	Bilbo
2013ko azaroaren 11tik 12ra	Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren lantoki osasungarriei buruzko kanpainaren aurkezpena	Inaugurazioa	Bilbo
2013ko azaroaren 15a	Kalitatearen eta bikaintasunaren Europako astea 2013 EMAKUNDE	Aurkezpena	Bilbo
2013ko azaroaren 21etik 22ra	Laneko psikosoziolegiari buruzko IV. jardunaldiak OSALAN	Inaugurazioa	Bilbo
2013ko azaroaren 29a	Laneko arriskuen prebentzioari buruzko V. Foroa. ADEGI	Hasiera	Donostia
2013ko abenduaren 5a	Arriskuen prebentzioaren alorreko presentakuntza-jardunaldiak Segurtasun Saila Eusko Jaurlaritza	Presentación	Erandio
2013ko abenduaren 11	Laneko osasunari buruzko jardunaldia UGT Euskadi	Hasiera	Bilbo

